



## **Analisi linguistikoen eskuzko sorkuntza eta kontsulten hobekuntza definizio-eskemetatik abiatuta.**

**Egilea:** Zuhaitz Beloki Leitza

**Tutoreak:** Xabier Artola Zubillaga, Aitor Soroa Etxabe

## **HIZKUNTZAREN AZTERKETA ETA PROZESAMENDUA**

Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamendua Masterreko titulua lortzeko bukaerako  
proiektua

2012ko iraila

---

**Sailak:** Lengoaia eta Sistema Informatikoak, Konputagailuen Arkitektura eta Teknologia, Konputazio Zientziak eta Adimen Artifiziala, Euskal Filologia, Elektronika eta Telekomunikazioak.

---

### **Laburpena**

Master bukaerako lan honetan Ixa taldearen analisi-tresnetan erabiltzen den informazio linguistikoaren inguruko ekarpenak egin dira. Egindako lana bi ataletan bereizi da: batetik, analisi linguistikoen formalizazioaren ingurukoa, analisi horien egitura zehazki definitu baita definizio-eskema batean. Bestetik, definizio hori erabili da anotazio linguistikoak kudeatzeko erabiltzen den Armiarma aplikazioaren bi funtzionalitate garatzeko. Funtzionalitate horiek analisi berrien eskuzko sorkuntzarako laguntha dinamikoa eta testu-corpuseen gaineko kontsultak definitzeko interfaze dinamikoa dira, bai sorkuntza eta bai kontsultak erabilgarri eta dinamiko egiteko analisien definizio-eskemak erabiltzen baitira oinarrian.

# Gaien aurkibidea

<b>1 Sarrera eta helburuak</b>	<b>5</b>
<b>2 Aurrekariak</b>	<b>7</b>
2.1 Anotazio linguistiko banatua: XML dokumentuen amarauna . . . . .	7
2.1.1 Ezaugarri-egiturak . . . . .	7
2.1.2 Amarauneko dokumentuen egitura . . . . .	8
2.1.3 Amaraunaren implementazio bat: informazioa datu-baseetan antolatzten . . . . .	14
2.1.4 Datu-baseen elikatzea . . . . .	16
2.2 Armiarma: anotazio linguistiko konplexuak kudeatzeko web-aplikazioa . . . . .	17
2.2.1 Interfaze grafikoa . . . . .	17
2.2.2 Sistemaren arkitektura . . . . .	20
<b>3 Analisi linguistikoen formalizazioa</b>	<b>23</b>
3.1 Motibazioa: RELAX NG eskemak eta erabilera . . . . .	23
3.2 Analisi XML egitura definituko duten RNG eskemen sorkuntza automatikoa analisi multzo batetik abiatuta . . . . .	24
3.2.1 Betekizunen analisia . . . . .	24
3.2.2 Algoritmoa . . . . .	26
3.2.3 Arazoak . . . . .	30
3.3 Analisi normalizazioa . . . . .	30
3.4 Analisi linguistikoen definizioa . . . . .	31
3.4.1 Segmentazioa . . . . .	31
3.4.2 Morfosintaxia . . . . .	34
3.4.3 Lematizazioa . . . . .	39

<b>4 Armiarma: Analisi linguistikoen sorkuntza eta kontsulta-ahalmena</b>	<b>43</b>
4.1 RNG eskemak kudeatzeko liburutegia . . . . .	43
4.2 Analisien eskuzko sorkuntza Armiarman . . . . .	45
4.2.1 Algoritmoa . . . . .	46
4.3 Analisi-kontsulten hobekuntza Armiarman . . . . .	49
4.3.1 Algoritmoa . . . . .	49
<b>5 Ondorioak</b>	<b>51</b>
<b>6 Etorkizuneko lanak</b>	<b>53</b>
<b>7 Eranskinak</b>	<b>55</b>
7.1 Analisi linguistikoen ezaugarrien antolaketa eta multzokatzea . . . . .	55
7.2 Analisien Relax NG definizio-eskemak . . . . .	57

## 1 Sarrera eta helburuak

Hizkuntzaren prozesamendu automatikoa beharrezko da gaur egun erabiltzen diren hainbat tresna garatu ahal izateko. Itzultzale automatikoak, galdera-erantzuneko sistemak, informazioaren erauzketa egiteko tresnak... denek dute oinarrian informazio linguistiko konplexuz osatutako biltegi bat. Informazio hori erabiliko dute, ondoren, beren eginkizunak burutzeko, dela testu bat hizkuntza batetik beste batera itzultzeko edo historiari buruzko galdera bati erantzuna emateko.

Mota horretako tresna batek behar duen informazio-kantitatea handia da oso. Horregatik, testu-iturri bat hartu eta corpus bat eraikitzen da bertatik lortutako testuekin. Horrek ezagutzaz hornituko du tresna, adibidez, erabiltzaile batek egindako mundu errealeko galdera bati erantzuteko gai izateko. Bainan bidean arazo handi bat sortzen da, izan ere, konputagailuak nekez interpretatu baitezake testu gordina.

Aipatutako tresnek testuekin lan egin ahal izateko testuak prozesatu egin behar izaten dira lehenbizi, hau da, testua landu, analizatu, linguistikoki anotatu, desanbiguatu etab. egin behar da. Behin prozesu hori amaituta, eta testua informazioz eta anotazioz aberastu dugula, orduan izango gara gai landutako testu horiekin lan egiteko gai den tresna linguistiko bat garatzeko.

Testuen prozesamenduan urrats ezberdinak ematen dira: testuko osagaiak identifikatu eta hitzetan edo tokenetan banatu, hitzen osagaiak edo morfemak identifikatu, hitz edo morfema bakoitzari dagokion informazio linguistikoa esleitu (kategoria, kasua, numeroa...), desanbiguatu... batzuetan analisi sintaktikoa ere egiten da, eta, gaur egun, analisi semantikoa egiteko zenbait urrats ere eman dira. Prozesuaren fase horietako bakoitza tresna batek egiten du. Beraz, prozesuaren sarreran testu-gordina izango dugu, eta irteeran, prozesatutako eta anotatutako testua. Bainan tarteko pausoetan informazioa eraldatzen, edo gehitzen, doa.

Informazio hori guztia adieraztea eta antolatzea ez da berehalako lana, bere izaera konplexua baita askotan, eta informazio konplexuarekin lan egingo duten tresnak garatu ahal izateko ezinbestekoa da informazio hori behar bezala egituratuta egotea. Hor kokatzen da masterreko tesi honen zati handi bat, Ixa taldean anotaziorako erabiltzen den Amarauna (Artola et al., 2009, 2005) izeneko formatua fintzean. Zehazki, analisi linguistikoen egitura definitza izan da lanik garrantzitsuenetakoa. Izan ere, duela urte asko definizio hori egin zen, baina orduan erabilitako lengoaiaren gabeziak, batetik, eta urteak pasatu ahala zaharkituak gelditu izana, bestetik, definizioak Relax NG lengoian hutsetik berregin dira.

Masterreko tesi honen beste zatia anotazio-eredu horri etekina ateraz Armiarma aplikazio linguistikoari funtzionalitate berriak gehitzean datza. Armiarmak hizkuntzalariei corporusak aztertzen laguntzeko interfaze bat eskaintzen die, kontsultak definitzeko aukera emanez, ondoren, emaitzak modu txukun batean jasotzeko. Masterreko tesi-lan honetan berrikuntza bat diseinatu eta egin zaio Armiarmari, eta kontsultak egiteko sistema hobetu

da.

Berrikuntza analisi linguistikoak eskuz sortzeko funtzionalitate bat izan da, beti ere, analisien egitura kontuan hartuz analisien sorkuntza intuitiboa eta erosoa izan dadin. Hurretarako, aurreko puntuaren esan bezala, analisi linguistikoen egitura definitu behar izan da XML eskema-lengoaia jakin bat, Relax NG, erabiliz. Ondoren, programa bat garatu da eskema horietatik abiatuz erabiltzaileari unean uneko informazioa eskatzeko. Hau da, programak, nolabait, badaki une bakoitzean zein informazio behar duen analisi zuzen bat sortzeko. Kontuan izan behar da analisi baten egitura oso konplexua dela, eta mota honetako laguntzarik gabe eskuz sortzea oso lan konplikatua izango litzatekeela. Gainera, behin hori eginda, analisien egitura aldatzen bada ere ez da programan aldaketarik egin behar izango, nahikoa izango baita definizio-eskema bera egunearatzea.

Kontsulta-sistema ere bide beretik jarraituz hobetu da. Kontsultak egiteko galdeategia dinamikoa izango da orain, analisien definizio-eskemetan oinarrituz beren edozein eremu edo ezaugarriren araberako kontsultak egin ahal izango baitira.

## 2 Aurrekariak

Ixa taldearen lan gehienen oinarrian hizkuntzaren prozesaketa dago. Prozesatutako testuak, dagokion informazio linguistiko guztiarekin batera, proiektu gehienen abiapuntu izan ohi dira. Hori dela-eta, ezinbestekoa da prozesaketa horri arreta berezia eskaintza, xehetasun guztiak zainduz, prozesu hori zuzena eta fidagarria izan dadin.

Hainbat dira prozesuan parte hartzen duten tresnak: Euskararen Datu-Base Lexikala (EDBL) (Aldezabal et al., 2001), tokenizatzalea, segmentatzalea, analizatzalea morfosintaktikoa (Alegria et al., 1996; Aranzabe et al., 2004), hitz anitzeko unitate lexikalak (HAUL) ezagutu eta prozesatzen dituen tresna (Alegria et al., 2004), eta lematizatzalea (Aduriz et al., 1996). Tresna horien arteko heterogeneotasuna dela-eta, ezinbestekoa da tresna horien sarrera-irteerak formalizatu eta eredu estandarizatu bat eskuan izatea, informazio linguistikoa prozesuan zehar tresna ezberdinaren artean igaro dadin. Horixe da atal honetan azalduko dena hain zuzen, tresnen artean trukatu beharreko informazio linguistiko konplexu hori adierazteko Ixa taldean diseinatu den formatu estandarra zertan datzan. Horrekin batera, Ixa taldean fitxategietan antolatu ohi den eredu hori datu-baseetan nola antola daitekeen erakusten duen eredua ere azalduko da.

### 2.1 Anotazio linguistiko banatua: XML dokumentuen amarauna

Atal honetan, informazio linguistikoa adierazteko sarreran aipatu den formatua azalduko da. Formatu hau eredu banatuari dagokio, informazioa dokumentu desberdinaren gordezen baita dagokion motaren arabera. Gainera, dokumentu horietako bakoitza XML dokumentu bat denez, XML dokumentuen amaraun bat eratzen da. Hortik datorkio, hain zuzen, bere izena: Anotazio linguistiko banatua: XML dokumentuen amarauna.

Atal honetan XML dokumentuen amaraun batean zein dokumentu mota aurki daitezkeen eta bakoitza zertan datzan azalduko da, eredu honen oinarrian dauden ezaugarri-egiturak azaltzetik hasiz.

#### 2.1.1 Ezaugarri-egiturak

Informazio linguistikoa oso konplexua izan daiteke. Gainera, lantzen ari garen informazio motaren arabera, oso desberdina ere bai. Adibidez, tokenizatzalearen eta analizatzale morfosintaktikoaren irteerak oso desberdinak izango dira, informazio mota desberdina emango baitute biek. Hori dela-eta, XML dokumentuak oso egokiak dira informazio mota hau kodetzeko. Informazioa adierazteko XML egitura zehaztea, ordea, ez da berehalako lana. Lan horren konplexutasuna dela-eta, aurrez eginda dagoen lana aprobetatzeko era-bakia hartu zen, izan ere, TEI erakundeak (Ide eta Véronis, 1995; Sperberg-McQueen eta Burnard, 2002) informazio linguistikoa kodetzeko ezaugarri-egitura izenekoak proposatzen

baititu (Carpenter, 1991). Horretaz baliatuz, hizkuntzaren prozesaketan parte hartzen duen tresna bakoitzaren sarrera-irteeretan erabiliko diren ezaugarri-egiturak definitu ziren, Feature System Declaration (FSD) izeneko dokumentuetan, eta egitura horiek erabili ziren tresna guztiak integratzeko.

Adibide gisa, *azala* hitz-formaren lematizazioari dagokion XML dokumentua ikus daiteke jarraian:

```

1 <fs id="L-A-IZE-ARR-114" type="lematizazioa">
2   <f name="forma">
3     <str>azala</str>
4   </f>
5   <f name="lema-osatua">
6     <str>azal</str>
7   </f>
8   <!-- Ezaugarriak -->
9   <f name="ezaugarri-morfologikoak">
10    <fs type="goimailako-ezaugarri-lista">
11      <f name="KAT">
12        <sym value="IZE"/>
13      </f>
14      <f name="AZP">
15        <sym value="ARR"/>
16      </f>
17      <f name="BIZ">
18        <minus/>
19      </f>
20      <f name="KAS">
21        <sym value="ABS"/>
22      </f>
23      <f name="NUM">
24        <sym value="S"/>
25      </f>
26      <f name="MUG">
27        <sym value="M"/>
28      </f>
29    </fs>
30  </f>
31 </fs>
```

Ikus daitekeen bezala, hainbat ezaugarri-egitura (*fs*) ager daitezke analisi bakarrean, eta ezaugarri-egitura guztiak, ezaugarriz (*f*) osatuta daude. Beraz, elementuen izenak ezaugarri motak bereizteko adierazgarriak ez direnez, *type* eta *name* atributuak gehitzen dira ezaugarri-egituren eta ezaugarrien motak adierazteko, hurrenez hurren.

### 2.1.2 Amarauneko dokumentuen egitura

Anotazio linguistikorako aukeratu den eredua anotazio linguistiko banatuarena da. Modu honetan, jatorrizko testuak ez du aldaketarik jasaten prozesatzen denean, aparteko dokumentuetan jasotzen baita testuari dagokion informazio guztia. Honela, dokumentuen amaraun bat osatzen da, non dokumentu bakoitzeko informazioa lotuta baitago bestetakoekin. Hori lortzeko, dokumentu batzuk informazio linguistikoa jasotzeaz arduratzentz

diren moduan, beste batzuk jatorrizko testuko osagai bakoitza dagokion informazio linguistikoarekin lotzeaz arduratzen dira. Amaraunean aurki daitezkeen dokumentuen artean, honakoak daude:

- Jatorrizko testu-dokumentua.
- Jatorrizko dokumentuko osagaiak: dokumentu bat token bakunekin eta beste bat HAULEkin<sup>1</sup>.
- Analisi-bildumak: segmentazioak, analisi morfologikoak eta lematizazioak.
- Estekak: testuko osagai bakoitza dagozkion analisiekin erlazionatzeaz arduratzen direnak.

Bestalde, aipatu, dokumentu horiek guztiak TEIk proposaturiko egitura errespetatuko dutela. Batetik, informazio guztia <TEI.2> elementuaren barruan ezarriko da. Gainera, dokumentu guztiak buruko bat izango dute (<teiheader> elementua, hain zuzen), non dokumentuari buruzko informazio orokorra zehazten ahal baita. Azkenik, burukoaren ondoren, gainerako informazio guztia jasoko duen <text> elementu nagusia izango dute dokumentuek.

## Jatorrizko testuak

Prozesatuko den jatorrizko testuari dagokion dokumentu mota da jarraian azalduko dena, hau da, jatorrizko testua XMLz nola kodetuko den, hain zuzen.

Testu hauek ahalik eta gutxien ukitu behar izatea da helburuetako bat, eta beraz, dagokien XML adierazpideak simplea behar du izan. Egiten dena testua paragrafoetan banatzea da, XML dokumentuan testuaren paragrafoak <p> elementuaz adieraziz, beti ere, bakoitzak bere id atributuan identifikadore bat izanik ondoren bertako osagaiei erreferentziak behar bezala egin ahal izateko. Horrez gain, atalak eta izenburuak bezalako beste zenbait eremu ere jaso behar ditu adierazpideak. Atalak <div> elementuekin bereizten dira, eta izenburuak <head> elementuekin. Horrez gain, komatxoen arteko elementuak, azpimarratutakoak, etab. zehazteko ere elementu bereziak erabiltzen dira.

Hona hemen adibide bat:

```

1  <TEI.2>
2    <teiheader> <!-- ... --> </teiheader>
3    <text>
4      <body>
5        <div id="id1" type="atala1">
```

<sup>1</sup>Hitz anitzeko unitate lexikalak. Adibidez: kale-garbitzaile, laranja-zuku, hala ere...

```

6   <head id="id2">Lizarrako pilota jaialdia, zuzenean, ostiral honetan ETB-1en</head>
7   <p id="id3"><hi rend="strong">Capellan-Lasa III eta Mikel Goni-Eulate arituko dira ↵
8     ↵ estelarrean</hi></p>
9   <p id="id4">Eskuz binakako bi partida ikusteko aukera izango da nagusi ostiral gaeane ↵
10    ↵ ETB-1en. Lizarrako jaialdiko bi partida emango dituzte 22:30etatik aurrera. ↵
11    ↵ Lehenengoan Saralegi-Apraiz eta Cabrerizo II-Beroiz bikoteek neurtuko dituzte ↵
12    ↵ indarrak. Ondoren, gaeuko estelarrean, Capellan-Lasa III eta Mikel Goni-Eulate ↵
13    ↵ arituko dira nor baino nor gehiago .</p>
14   <p id="id5">Xabier Euzkitzak eta Josean Tolosak egingo dute kontakizuna.</p>
15   <p id="id6"><hi rend="display: none;">&nbsp;</hi></p>
16   </div>
17 </body>
18 </text>
19 </TEI.2>
```

## Testu tokenizatua

Testu bat prozesatzearen lehenbiziko fasea, normalean, testua tokenizatzea izaten da. Fase honetan, testuan dauden osagaiak bereizten dira. Osagaiak, normalean, hitzak izango dira, baina ez beti. Bestelako tokenak ere badaude: komak, puntuak, kakotxak, etab. Gainera, askotan, token bakunez gain HAULak ere aurkituko dira.

Jatorrizko testuan identifikatutako tokenak biltzen dituen dokumentua da hau. Bertan bi zati nagusi bereizten dira, bi `<p>` elementutan banatuta: batetik, kanko-erakusleak izango direnak. Hauek `<xptr>` elementuen bidez adierazten dira, eta token bat zein dokumentutan dagoen jakinarazten du. Bestetik, tokenak berak zein diren eta dokumentuaren zein posiziota dauden adierazten duten elementuak daude, atributu baten bidez bakoitzari dagokion kanko-erakuslearekin lotzen direlarik.

Adibidea:

```

1 <TEI.2>
2   <teiHeader> <!-- ... --> </teiHeader>
3   <text id="WDoc0001">
4     <body>
5       <p id="xptr">
6         <xptr id="Xw1" doc="TDoc0001"/>
7         <xptr id="Xw2" doc="TDoc0001"/>
8         <xptr id="Xw3" doc="TDoc0001"/>
9         <xptr id="Xw4" doc="TDoc0001"/>
10        <!-- ... -->
11      </p>
12      <p id="w">
13        <w id="w1" sameAs="Xw1" target="substring(//p[@id='id1']/text(),1,1)" type="PUNT_GALD"↗
14          ↵ >?</w>
15        <w id="w2" sameAs="Xw2" target="substring(//head[@id='id3']/text(),1,4)" type="HAS_MAI↗
16          ↵ "Aupa</w>
17        <w id="w3" sameAs="Xw3" target="substring(//head[@id='id3']/text(),6,2)">gu</w>
18        <w id="w4" sameAs="Xw4" target="substring(//head[@id='id3']/text(),9,3)">eta</w>
19      </p>
20   </body>
21 </text>
22 </TEI.2>
```

## HAULen egitura

Testu tokenizatuari dagokion dokumentuan token bakunak bereizten dira. Hala ere, testuetan HAULak ere ager daitezke. Horiek dokumentu honen bidez adieraziko dira. Dokumentu honetan estekak soilik agertuko dira. Honela, HAUL baten osagai diren tokenen erreferentziak bilduko dira dokumentu honetan.

Horretarako, batetik, testuko HAULen parte diren tokenen erreferentziak biltzen dira `<xptr>` elementuen bidez, eta ondoren, `<join>` elementuen barruan, HAULA osatzen duten tokenen erreferentziak.

Adibidea:

```

1 <TEI.2>
2   <teiHeader> <!-- ... --> </teiHeader>
3   <text id="MWDoc0001">
4     <body>
5       <p id="xptr">
6         <xptr id="Xw87" doc="WDoc0001" from="ID(w87)"/>
7         <xptr id="Xw88" doc="WDoc0001" from="ID(w88)"/>
8         <xptr id="Xw119" doc="WDoc0001" from="ID(w119)"/>
9         <xptr id="Xw120" doc="WDoc0001" from="ID(w120)"/>
10      </p>
11      <p id="joinGrp">
12        <joinGrp type="Haul" targOrder="y">
13          <join id="mw1" type="Correct">
14            <target name="wId" value="Xw87"/>
15            <target name="wId" value="Xw88"/>
16          </join>
17          <join id="mw2" type="Correct">
18            <target name="wId" value="Xw119"/>
19            <target name="wId" value="Xw120"/>
20          </join>
21        </joinGrp>
22      </p>
23    </body>
24  </text>
25 </TEI.2>

```

## Segmentazio mailako informazio linguistikoa

Dokumentu hau segmentatzairen morfologikoaren irteera da. Besterik gabe, ezaugarri-egitura bakoitza segmentazio bat adierazten du, eta `<p>` elementu baten barruan kokatzen da.

Segmentazio mailako analisi bakar batez osatutako dokumentuaren adibidea, *lortu* formari dagokiona:

```

1 <TEI.2>
2   <teiHeader> <!-- ... --> </teiHeader>

```

```

3 <text id="MWDoc0001">
4   <body>
5     <p>
6       <fs id="S-A-ADI-SIN-9" type="segmentazioa">
7         <!-- ... -->
8       </fs>
9     </p>
10    </body>
11  </text>
12 </TEI.2>

```

Analisiengorputzaren egitura aurrerago aztertuko da xehetasunez, 3.4 atalean.

### Morfologia mailako informazio linguistikoa

Dokumentu hau analisi morfosintaktikoaren irteera da. Segmentazioaren kasuan gertatzen zen moduan, `<p>` elementu baten barruan doa analisi bakoitza, ezaugarri-egitura batekin adierazita. Analisi morfosintaktiko honek, segmentazioa bere barruan adierazteaz gain, ondoko prozesuetarako informaziorik garatuena ematen du.

Dokumentuen egitura segmentaziokoen berbera da, baina analisiak morfosintaxi mailakoak izanik.

### Lematizazio mailako informazio linguistikoa

Lematizatzailaren irteera da dokumentu hau. Bertan, analisi morfosintaktikoetatik abiatuta, desanbiguazio-lanak egin (Ezeiza et al., 1998) eta bertsio simplifikatu bat itzultzen du. Hori adierazteko, lematizazio-analisi bakoitza ezaugarri-egitura batekin adierazten da, `<p>` elementu baten barruan.

Segmentazio- eta morfosintaxi-analisiengorputzaren egitura berbera dute lematizazioengorputzaren dokumentuek ere.

### Tokenen eta dagokien informazio linguistikoaren arteko estekak

Tokenak eta analisiak biltzen dituzten dokumentuak nola antolatzen diren ikusi dugu orain arte, baina dokumentu horietan bai tokenak eta bai analisiak independenteak dira. Hau da, ez dago loturarik testuko tokenen eta analisiengorputzaren artean. Anotazio-eredua egokia izatekotan, token bakoitzari dagozkion analisiak zein diren adierazi beharra dago nolabait, eta bai alderantziz ere, analisi bakoitza zein tokeni dagokion. Izan ere, anbiguotasuna dago hemen. Token bakoitzak analisi posible bat baino gehiago izan ditzake, hitz batek, adibidez, aditz edo izen moduan joka baitezake testuinguruaren arabera.

Tokenak eta dagokien analisiak lotzeko, beraz, lotura-dokumentuak sortzen dira. Do-

kumentu hauetan tokenen erreferentziak eta dagozkien analisien erreferentziak elkartzen dira. Honela, token batek erreferentzia bat baino gehiago baditu, anbiguo dela esaten da. Desanbiguazioa egiten denean, token bakoitza analisi soil batekin lotuta utzi behar da, hau da, dagozkion analisi guztietatik bakarra utzi behar da zuzen bezala markatuta.

Mota honetako hiru dokumentu sortzen dira: segmentazio mailako analisientzat, morfosintaxi mailakoentzat eta lematizaziokoentzat bana. Hirurek formatu berbera dute. Batetik, `<xptr>` elementuen bidez tokenen eta segmentazio, morfosintaxi edo lematizazio mailako analisien erreferentziak eskuratzentzen dira. Ondoren, erreferentzia horietaz baliatuz, `<linkgrp>` elementuaren barruan, token bakoitza dagozkion analisiekin lotzen da. Horretarako `<link>` elementuak erabiltzen dira, `targets` atributuan token baten eta analisi baten erreferentziak zehazten baitira. Gainera, `type` atributuan esteka zuzena den edo ez adierazten da, hau da, testuinguru horretan tokenari analisi jakin bat dagokion edo ez.

Segmentazio, morfosintaxi eta lematizazioari dagozkien esteken dokumentuek egitura aldetik desberdintasunik ez dutenez, adibide bakarra jarri da, lematizazioari dagokiona.


```

1 <TEI.2>
2   <teiHeader> <!-- ... --> </teiHeader>
3   <text id="LNKDoc0004">
4     <body>
5       <p id="xptr">
6         <!-- Tokenen erreferentziak -->
7         <xptr id="Xw2" doc="WDoc0001" from="ID(w2)"/>
8         <xptr id="Xw3" doc="WDoc0001" from="ID(w3)"/>
9         <xptr id="Xw4" doc="WDoc0001" from="ID(w4)"/>
10        <!-- ... -->
11
12        <!-- Lematizazioen erreferentziak -->
13        <xptr id="XL-A-ADI-SIN-207" doc="LemDoc0002" from="ID(L-A-ADI-SIN-207)"/>
14        <xptr id="XL-A-ITJ-6" doc="LemDoc0002" from="ID(L-A-ITJ-6)"/>
15        <xptr id="XL-A-IOR-PERARR-7" doc="LemDoc0002" from="ID(L-A-IOR-PERARR-7)"/>
16        <xptr id="XL-A-LOT-JNT-8" doc="LemDoc0002" from="ID(L-A-LOT-JNT-8)"/>
17        <xptr id="XL-A-LOT-MEN-3" doc="LemDoc0002" from="ID(L-A-LOT-MEN-3)"/>
18        <!-- ... -->
19      </p>
20
21      <p id="linkGrp">
22        <linkGrp type="Token-Analisi" targOrder="y">
23          <link type="NoCorrect" targets="Xw2 XL-A-ADI-SIN-207"/>
24          <link type="Correct" targets="Xw2 XL-A-ITJ-6"/>
25          <link type="Correct" targets="Xw3 XL-A-IOR-PERARR-7"/>
26          <link type="Correct" targets="Xw4 XL-A-LOT-JNT-8"/>
27          <link type="NoCorrect" targets="Xw4 XL-A-LOT-MEN-3"/>
28        </linkGrp>
29      </p>
30    </body>
31  </text>
32 </TEI.2>
```

### **2.1.3 Amaraunaren implementazio bat: informazioa datu-baseetan antolatzeko**

Orain arte azaldu dugun amarauna eredu teoriko bat besterik ez da, informazioa nola egituratu azaltzen duena. Eredu horrek implementazio desberdinak izan ditzake, adibidez, fitxategi edo datu-baseetan. Ixa taldean, normalean, fitxategitan antolatzen da. Atal honetan azalduko dugun implementazioa 2.2 atalean azalduko den Armiarma aplikazioarekin lotuta dago, aplikazio horretan erabiltzeko diseinatu baitzen. Bertan, informazioa datu-baseetan antolatzen da.


Amarauaren implementazio honek zenbait hobekuntza eskaintzen ditu fitxategietan oinarritzen denarekin alderatuta. Batetik, atzipenak eta aldaketak egitea erosagoa eta eraginkorragoa da. Baino, garrantzitsuena, fitxategien ereduau agertzen den errepikatutako informazio ugaria desagertzen da. Corpusak dokumentuz dokumentu prozesatzen dira, eta prozesu horien irteerak fitxategietan gordetzen dira. Dokumentuen prozesamenduak independenteak direnez elkarrekiko, ez da kontuan hartzen une bakoitzean sortzen den irteera agian aurrez prozesatutako dokumentu batean dagoeneko adierazita dagoela. Hori dela eta, corpuseko testu-dokumentuetan errepikatzen diren elementu guztiak, eta horiei dagokien informazio linguistiko guztia, agerpen adina aldiz errepikatuta agertzen da fitxategietan. Datu-baseetan, ordea, arazo hori desagertu egiten da, izan ere, token, HAUL, analisi edo estekem biltegi bakoitza corpus mailakoa baita, eta ez dokumentu mailakoa (1. irudia).



**1 irudia:** Amarauna fitxategien eredutik datu-baseen eredura pasatzearen abantailak.


Amarau-ereduan datu mota desberdinak ditugu: tokenak, HAULak, analisi linguis-tikoak eta estekak. Hori dela-eta, bakoitzarentzat datu-base eta taula egokiak diseinatu behar dira. Kasu honetan, bi datu multzo desberdin sailkatu dira beren izaeraren arabera: analisiak batetik, eta tokenak, HAULak eta estekak bestetik. Tokenak, HAULak eta estekak oso egokiak dira datu-base erlazioaletan gordetzeko. Izan ere, hauen egitura simplea baita, atributu zerrenda batekin adierazten ahal baitira. Horregatik, MySQL

motako datu-base erlazionalak erabiltzen dira horiek gordetzeko. Analisien egitura, aldiz, oso desberdina da, zuhaitz baten egitura baitaukate. Mota horretako informazioa gordetzeko ohiko datu-base erlazionalak ez dira egokiak. Aldiz, XML datu-baseak aukeratu dira analisiak biltegiratzeko. Zehazki esanda, Berkeley XML DB datu-basea.



**2 irudia:** Amarauna datu-baseetan antolatuta.

2. irudian ikusten den bezala, hiru multzotan banatu da informazioa: tokenak, HAU-Lak eta estekak datu-base erlazional baten tauletan, eta analisiak XML datu-base batean. Hiru analisi-maila desberdin direla-eta, analisiak gordetzeko hiru XML datu-base erabiltzen dira, berdinak izan arren, analisi mota bakoitza besteengandik bereizita mantentzeko. Ondorioz, eta eredu kontsistente mantentzearren, estekak ere hirutan banatu dira. Hone-la, estekentzat egitura bereko hiru taula erlazional erabiltzen dira. Eskema osoa 3. irudian ikus daiteke.



**3 irudia:** Datu-baseen eskema.

XML datu-basearen barne-egiturak ez du misteriorik. Mota horretako datu-baseak dokumentutan banatzen dira, XML dokumentutan, dokumentu bakoitzak identifikadore

bat daukalarik. Kasu honetan, analisi linguistiko bakoitza datu-baseko dokumentu batean biltegiratzen da, analisiaren identifikadorea bera dokumentuaren identifikadore izanik.

Token, HAUL eta esteken taulak konplexuagoak dira, elementu horiek atributu zerrenda baten bidez adierazi behar baitira. Eremu garrantzitsuenak aipatzuz, tokenek dagokien dokumentuaren izena, dokumentu mailako identifikadore bat eta tokenaren forma bera izan behar dute. Horrez gain, tokenak dokumentuan duen posizioa, paragrafoaren identifikadorea, token mota<sup>2</sup> eta tokena XML dokumentuan kokatzen duen XPath espresioa ere gordezen dira taulan. Taula mailako identifikadorea dokumentu-izenak, identifikadoreak eta posizioak osatzen dute. HAULen taulak atributu gutxiago ditu, izan ere, HAUL bat hainbat tokenen elkarketa baita. Beraz, HAULaren identifikadoreak, tokenaren dokumentu-izenak eta tokenaren dokumentu mailako identifikadoreak osatzen dute HAULen taulako sarrera bakoitzaren identifikadorea. Horrez gain, HAULA zuzena edo okerra den adierazten duen eremu bat dauka taulak. Azkenik, esteken taulan, tokenaren identifikadoreak eta dagokion analisiarenak osatuko dute esteken identifikadorea: dokumentu-izenak, tokenaren dokumentu mailako identifikadoreak eta analisiaren identifikadoreak. Horrez gain, token horrentzat analisi jakin hori zuzena den edo ez adierazten duen boolearra ere badauka.


#### 2.1.4 Datu-baseen elikatzea

Aurreko atalean ikusi dugu amaraunaren implementazio bat, 2.2 atalean aztertuko den Armiarma aplikaziorako diseinatu zena. Implementazio hori datu-baseetan oinarritzen da, eta ikusi dugu datu-baseak eta taulak nola antolatzen diren. Jatorriz, ordea, Ixa taldean informazio hori fitxategietan mantentzen da, eta beraz, datu-baseak elikatu egin behar dira fitxategi horien edukiarekin.

Prozesu horretan laguntza handia eskaintzen du LibiXaML (Artola et al., 2002) liburutegiak. Liburutegi hau Ixa taldean garatu zen, amarauneko informazioarekin lan egiten laguntzeko. Oraingoz, fitxategietan antolatutako edukiekin bakarrik egiten du lan, baina etorkizunean datu-baseetan antolatutako eredu ere integratzea da asmoa. Dena dela, kasu honetan, fitxategietatik jasoko da datu-baseetan sartuko den informazioa, eta beraz, laguntza handia eskaintzen du liburutegiak token, HAUL, analisi eta estekak fitxategietatik irakurtzeko garaian. LibiXaMLk klase asko eskaintzen ditu, baina datu-baseak elikatzeko prozesuan W, Join, FS eta Link dira interesgarrienak, token, HAUL, analisi eta estekak maneiatzeko erabiltzen direnak baitira, hurrenez hurren.

Prozesua antzekoa da lau elementu motentzat. Lehenik, datu-baseko taula sortzen da (dagoeneko sortuta ez badago). Ondoren, fitxategiaren edukia kargatzen da. Horretarako ere LibiXaMLk zenbait klase eskaintzen ditu: WXMLDoc, MwXMLDoc, FSXMLDoc eta LnkXMLDoc. Behin edukia objektu batean dauagula, objektu horiek berek eskaintzen

<sup>2</sup>Token mota desberdinak bereizten dira amaraun-ereduan, hala nola, puntuazio-ikurrak (puntu, koma, galdera ikur...), letra-larriz hasten direnak etab.



**4 irudia:** Analisien (FS) biltegiratzearen sekuentzia diagrama.

dutentzako metodo batekin token, HAUL, analisi edo esteka zerrenda bat lortzen da. Azkenik, elementuak banan-banan datu-basean sartzen dira, objektu horiek elementuaren atributu guztiak eskuratzeko metodoak eskaintzen baitituzte. Elementua aurrez datu-basean bazegoen edo ez ere aztertzen da. 4. irudian analisien biltegiratze-prozesuaren sekuentzia-diagrama ikus daiteke. Gainontzekoek ere egitura berdina dute.

## 2.2 Armiarma: anotazio linguistiko konplexuak kudeatzeko web-aplikazioa

Aplikazio hau Ixa taldean garatu da, Lexikoaren Behatokia proiektuaren baitan. Proiektu hau Euskaltzaindiari dagokio eta UZEI, Elhuyar eta Ixa taldearekin batera garatzen ari da. Helburua hizkuntzaren ikerketarako eta azterketarako testu-corpus handi bat osatzea du, horretarako Argia, Berria, EITB.com eta beste zenbait komunikabideren eskuistik lortutako testuak erabiliz. Corpus horrek interfaze bat behar du, kontsultak ez ezik, desanbiguazio-eta aberaste-lanak ere egiteko modua izateko. Armiarma da aplikazio horren izena, eta aurrez Ixa taldean garatutako EULIA (Artola et al., 2004) tresnaren oinordeko da. Masterreko proiektu honek lotura handia dauka Armiaurrekin, izan ere, hemen egindako lanak aplikazio hori garatu eta osatzeari begira egin baitira neurri handi batean.

### 2.2.1 Interfaze grafikoa

Armiarmaren web-interfazeak aukera eman behar du testu-corpus baten gainean kontsultak egin, analisien desanbiguazio-lanak egin eta analisi berriak eskuz sortu eta corpusean txertatzeko. Hori dena, erabiltzaile eta baimenen kudeaketa bat eginez, noski.

**5 irudia:** Armiarmaren kontsulta-interfazea.

## Kontsulta-sistema

Kontsultena da Armiarmaren oinarrizko funtzionalitatea (5. irudia). Erabiltzaileak hainbat terminoren araberako kontsulta bat defini dezake, aplikazioak corpusean bilaketa egin eta emaitzak KWIC<sup>3</sup> moduan itzuliko dituelarik. Kontsultak definitzeko formulario bat eskaintzen du interfaizeak ezkerreko aldean, lau zatitan bananduta. Lehenbiziko zatian bi parametro aukeratu daitezke: segmentazio, morfosintaxi edo lematizazio mailan lan egin nahi dugun, eta analisi guztiak edo zuzenak bakarrik kontuan hartzea nahi dugun. Beste hiru zatietako bakoitzean termino bat definitzen ahal da. Termino bat definitzeko, forma edo lemaz gain, kategoria, azpikategoria eta beste edozein ezaugarri ere zehazteko aukera dauka erabiltzaileak. Azkenik, definitutako termino bakoitzaren kokapenaren inguruko murriztapenak gehitu daitezke, beti ere, aurrez definitutako terminoarekiko erlatiboak. Hau da, bigarren terminoak lehenbizikoaren ondoren agertu behar duela esan dezakegu, asko jota hiru hitzeko distantziara; edo lehenbizikoaren hurrengo edo aurreko hitza izan behar duela, etab. Baldintza guztiak konjuntzio modukoak dira, eta, beraz, baldintzetako bat betetzen ez bada, agerpena baztertu egiten da zuzenean.

<sup>3</sup>KWIC formatuak, (Key Word In Context, ingelesez) hitz gako bat edo gehiago testuinguruan kokatuta erakusten ditu. Kasu honetan, kontsultan definitutako terminoa erdigunean kokatuko du, inguruan hitz horren aurreko eta ondorengo hitzak ere erakutsiz.

**BIRA. Plazera**

**Egilea: BORDA, Itxaro**

Bira  
Itxaro Borda  
Plazera

Krisia da. Aburu ikerketen arabera familiek eguberriirako ohiko zazpi ehun euroen ordez, solik lau ehunen xahutzeko xedea dagerte: sailek zulo dabilizak eta gerrikak trinko. Errrealitate mingotsa da denda hutsak eta kontsumitzeko kemen ahalak sumatzean. Baina ele zuriz hanpatu pantailean ardura aditzten den perpausa behar diogu elkarri plazer egin tehetuta dugu, magazin handietako atal karioak erakusten dizkigutenean.

Santzipurri zubitik eltxera nentoren ilunbean gogoeta hasi nintzen plazera kontzeptua ardatz. Funtsean zergatik hainbeste errepikatzen da hitz hori? Gobernuan jarri dituzten arra gaztigatzalea, haren pulinda mukizuak eta aferagile harrapareiek pairamena, **bekalzkeria eta desjabetez ekonomikoa** zuzentasunaren izenean justifikatzen dute. Hemitarrek sufrizzen du, lepo zainak tiran, beti bekatoros, eta halaz, notabait onargaria da pentsatzea noiztenka plazer txikiak zilegi zatziola ez dagoen dirutik baldin bada ere.

Ideologikoki buruak apal herrestean bizi zearen auto-saria al da kontsumitzeko plazera? Aita zenak lansao gogoraren ondotik beti erraten zuen: aho ittilkaat mehexitlanat ba'araz...  
Plazer horren ukatzea odar-ekintza bat balitz?


**6 irudia:** Agerpen bati dagokion testu osoa ikusteko estekan klikatuz, erlaitz berri bat zabaltzen da testua erakutsiz.

Kontsulta batek eskaintzen duen informazioa ez da hor bukatzen, ordea. Emaitzetako agerpen bakoitzean, kontsultan definitu diren termino bakoitzaren analisi linguistikoak ere ikus daitezke horietakoren batean klikatuz gero. Analisiak eskuineko aldean agertuko dira, testuinguruaren arabera zuzen bezala markatuta dagoena berdez, eta okerrekoak gorriz.

Kontsultatu daitekeen beste gauza bat agerpenari dagokion dokumentu osoa da. Kasu honetan, dokumentu bakoitza komunikabide bateko artikulu bat da normalean. Artikulu osoa ikusteko, bere egile, izenburu, data eta testu osoarekin, agerpenaren eskuin aldean “testu osoa” jartzen duen estekan klikatu behar da. Honela, erlaitz berri bat zabalduko da interfazean artikulua erakutsiz (6. irudia).

### Desanbiguazio-sistema

Lexikoaren Behatokia corpusa linguistikoki prozesatu eta anotatu da. Hala ere, prozesu hori automatikoki egin da bere osotasunean. Horrek esan nahi du zenbait kasutan informazio linguistikoa ez dela zuzena izango. Hori dela-eta, interfazeak analisien eskuzko desanbiguazioa egiteko funtzionalitatea eskaintzen du. Erabiltzaileak, horretarako, baime-nak esleituta izan behar ditu sisteman. Prozesua simplea da, hitz baten analisiak erakustea



**7 irudia:** Analisien desaniguazioa Armiarman.


eskatzen denean, aurreko atalean ikusi den moduan, berdez analisi zuzena agertzen da eta gorri okerrak. Erabiltzaileak desaniguazioa gaizki eginda dagoela ikusten badu, nahi-koia du koloreen gainean klikatuz kolore horiek aldatzea. Aldaketak baieztatzeko botoia sakatzen den unean, datu-basean aldaketak gordeta gelditzen dira (7. irudia).

### 2.2.2 Sistemaren arkitektura

Armiarma aplikazioaren arkitekturak badauka konplexutasunik (8. irudia). Web-aplikazio batez ari gara. Arkitektura hiru mailatan bereiz dezakegu: datuen modeloa (datu-baseak eta fitxategiak), aplikazioaren logika eta interfazea.

Datu modeloa aurkeztu dugu dagoeneko, 2.1.3 atalean. Laburki esanda, analisiak XML datu-baseetan gordetzen dira, eta token, HAUL eta estekak datu-base erlazionaletan. Aplikazioarentzat espezifikoa den beste datu-base erlazional bat ere badago, erabiltzaileen informazioa gordetzeaz arduratzen dena. Horrez gain, jatorrizko dokumentuak fitxategietan mantentzen dira, dokumentu osoa interfazean erakusteko garaian praktikoagoa baita fitxategietatik jasotzea datu-baseetatik dokumentua berreraikitzea baino.

Aplikazioaren logika bi modulu nagusik kudeatzen dute. Batetik, PHPz idatzitako



**8 irudia:** Armiarmaren arkitektura.

UserManager modulua, erabiltzaile eta baimenen kudeaketaz arduratzen dena. Hau da erabiltzaileen datu-basearekin komunikatuta dagoen modulu bakarra. Bestetik, aplikazioaren modulurik garrantzitsu eta konplexuena den HybridServer modulua daukagu, kontsultak eta desanbiguazioak egiteaz arduratzen dena. Modulu hau C++ lengoaiaz idatzita dago eta analisien, tokenen, HAULen eta esteken datu-baseekin komunikatuta dagoena da. Azkenik, kontsulta- edo desanbiguazio- eskaera bakoitzeko HybridServer-en instantzia bat sortzeaz PHP scriptak arduratuko dira. Hau da, web-orriak PHPz kodetuta daudenez, eskaera bakoitzeko HybridServer moduluaren instantzia bat sortuko du, dagozkion parametroak pasatuz, eta moduluak itzuliko dizkion emaitzak jasotzeko komunikazio-kanal bat sortuz. HybridServer moduluak bere emaitza guztiak XMLz kodetuta itzultzen ditu.

Amaitzeko interfazea azaltzea gelditzen da. Aplikazioaren izaera dinamikoa dela-eta, interfazea leho bakarrean erakusteko ahalegina egin da: kontsultaren definizioa, emaitzak, analisiak eta desanbiguazioa, dena, leho bakarrean. Horretarako AJAX teknika erabili da, honela ez baita orri osoa birkargatu behar izaten zerbitzariarekin komunikatu nahi den bakoitzean. Bestalde, esan dugun moduan zerbitzariak emaitza guztiak XMLz itzultzen dituenez, XSLT scriptak sortu dira XML egitura horiek HTML bihurtu eta interfazean modu txukun batean erakusteko.



## 3 Analisi linguistikoen formalizazioa

### 3.1 Motibazioa: RELAX NG eskemak eta erabilera

Ixa taldean analisi linguistikoak aspalditik sortu eta erabili izan dira. Analisiak egitura konplexuak dira, hierarkikoki antolatutako eremu desberdinez osatzen baitira. Gainera, analisi batetik bestera asko alda daiteke analisiaren itxura. Adibidez, kategoria desberdinak hitzen analisiek ezaugarri desberdinak izango dituzte. Esaterako, aditz batek aditzoina definituta izan behar duen bezala, izen batek plurala den edota bividuna den bezalako ezaugarriak izan behar ditu definituta. Aldagarritasun horrek buruhaustea eman ditzake analisi baten egitura orokorra nolakoa den ulertzeko garaian, eta beraz, ezinbestekoa da, nolabait, analisien egitura orokor hori formalki definitzea.

Hasieratik definitu zen analisien egitura nolakoa zen. Definizio horiek egiteko Feature System Declaration (FSD) lengoia erabili zen (aldi berean XML lengoia bat dena). Lengoia hau ez zen hasiera batean espero zena bezain erabilgarria suertatu. Horren arrazoi nagusietako bat FSDEkin definitutako lengoian idatzitako dokumentuak validatu ezin izatea da, ez baitago FSDEkin lan egiten duen parser edo validatzailerik. Analisiak denboran zehar aldatu egin dira, hamaika arrazoi direla medio, eta, aldiz, definizioak (FSDak) beren horretan geratu dira, eguneratu gabe, eta pixkanaka zaharkituz joan dira. Aldaketa guztiek definizio-eskemarekin validatu behar izanez gero, errazagoa litzateke eskema horiek eguneratuta mantentzea. Arazoa beste ikuspuntu batetik ikusita, FSD eskemak gizakiak analisien egitura ulertzeko lagungarri dira, baina ez dute balio konputagailuek egitura hori uler dezaten, esan bezala, ez baitago horiekin lan egiteko parser edo APIrik.

Urteak pasatu dira, eta FSD definizioak oso atzeratuta gelditu dira analisien gaur egungo egiturarekin alderatuta, baina ez da hori izan eskemak birdefinitzera bultzatu gaituen arrazoi bakarra. Armiarma aplikazioaren funtzionalitate berri bat analisi linguistikoak hizkuntzalari batek eskuz sortzeko lagunten ematea da. Horretarako, sistemak gidatu behar du hizkuntzalaria, une bakoitzean hautagai diren eremuak proposatuz, eta eremu bakoitzaren balio posibleak zein diren jakinaraziz, besteak beste. Hori egiteko, garbi dago sistemak analisien egitura xehetasun guztiekin ezagutu behar duela. Hori izan da analisi linguistikoak RELAX NG (RNG) lengoiaaz definitzeko arrazoi nagusia. RNG XML eskema-lengoia bat da, XML lengoia berriak definitzea ahalbidetzen duena. TEIk dokumentuak validatzeko hobesten duen lengoia da, izatez. Kasu honetan, analisi linguistikoen egitura definitu da RNG eskemen bidez. Honela, aurrez aipatu dugun analisien sorkuntza egiten laguntzeko sistemak nahikoa izango du RNG eskema irakurtzearekin analisien egitura zehatza ezagutzeko. Gainera, RNG eskemak validatzeko tresna ugari daude, XML dokumentu bat eta RNG eskema bat emanda, dokumentu hori eskema horretan definitutako lengoaiarekin bat datorren edo ez esaten duenak.

## 3.2 Analisien XML egitura definituko duten RNG eskemen sorkuntza automatikoa analisi multzo batetik abiatuta

Analisien RNG definizio-eskemak automatikoki sortu direla esan daiteke. Horretarako, analisi multzo batetik abiatuta, beren egitura erauzi da programa baten bidez. Atal honetan ataza hau nola burutu den azalduko da, betekizunen analisia egitetik hasi eta algoritmoa azaltzeraino.

### 3.2.1 Betekezunen analisia

Analisien egitura erauztea beren XML dokumentuetatik abiatuta RNG eskema lortzean datza. Hori egiteko tresnak egon badaude, baina ez dira erabilgarriak izan kasu honetan. Horren arrazoia tresna horiek oso helburu orokorrekoak izatea da, eta aplikazio honek badu ezaugarri bat helburu orokorreko tresna horiek jokoz kanpo uzten dituena. Aipatutako tresnek bi XML elementu berdinak direla jotzen dute elementuen izena berdina bada. Analisiak kodetzeko erabili den TEIk proposatutako ezaugarri-egituren izaera dela-eta, ordea, elementu gehienen izena `f`s edo `f` da, eta elementuak `type` eta `name` atributuen balioen arabera desberdintzen dira. Arazoa hobeki ikusteko, adibide bat jarriko da:

```

1 <ezaugarriak>
2   <f name="KAT">
3     <sym value="IZE"/>
4   </f>
5   <f name="AZP">
6     <sym value="ARR"/>
7   </f>
8 </ezaugarriak>
```

XML dokumentu horretan ageri diren bi elementuak analisi baten bi ezaugarri desberdin dira: kategoria eta azpikategoria. Kasu horretan, kategoria “izena” litzateke eta azpikategoria “arrunta”. Bi elementu horiek, RNG erauzle arrunt batek, “`f`” izeneko elementu baten bi instantzia bezala ulertuko lituzke. Beraz, eskeman, honelako zerbait adieraziko luke: “Ezaugarrien barruan `f` motako elementu bat baino gehiago egon daiteke. `f` elementuak name izeneko atributu bat dauka, bere balioa KAT edo AZP izan daitekeelarik. Elementu honek, barruan, `sym` izeneko elementu bakarra izango du, eta bere balioa IZE edo ARR izango da.”. Interpretazio hori hurrengo adibidean ikusten da:

```

1 <element name="ezaugarriak">
2   <oneOrMore>
3     <element name="f">
4       <attribute name="name">
5         <choice>
6           <value>KAT</value>
7           <value>AZP</value>
8         </choice>
```

```

9   </attribute>
10  <element name="sym">
11    <attribute name="value">
12      <choice>
13        <value>IZE</value>
14        <value>ARR</value>
15      </choice>
16    </attribute>
17    <empty/>
18  </element>
19 </oneOrMore>
20</element>
```

Guk, ordea, ez dugu interpretazio hori nahi, guretzat bi elementuak desberdinak baitira: bat kategoria eta bestea azpikategoria. Hau da lortu nahi den interpretazioa: “Ezaugarrien barruan bi elementu daude. Lehenaren izena *f* da eta bere name atributuaren balioa KAT. Bigarrenaren izena ere *f* da, baina bere name atributuaren balioa AZP. Lehenak *sym* izeneko elementu bat dauka, *value* atributuaren balioa IZE izanik, eta bigarrenak ere izen bereko elementu bat dauka, bere *value* atributuaren balioa ARR izanik.”. Hau da, elementuak ez dira beti izenaren arabera bereiziko. Izena *f* denean name atributuaren balioaren arabera erabakiko da elementu berdinez ari garen edo ez, eta izena *f*s denean, type atributuaren arabera. Izena beste edozein denean, orduan bai, izenaren arabera desberdinduko dira. Hona hemen espero dugun interpretazio horri legokioken eskema:

```

1 <element name="ezaugarriak">
2
3  <!-- Kategoria -->
4  <element name="f">
5    <attribute name="name">
6      <value>KAT</value>
7    </attribute>
8    <element name="sym">
9      <attribute name="value">
10     <value>IZE</value>
11   </attribute>
12   <empty/>
13 </element>
14 </element>
15
16 <!-- Azpikategoria -->
17 <element name="f">
18   <attribute name="name">
19     <value>KAT</value>
20   </attribute>
21   <element name="sym">
22     <attribute name="value">
23       <value>IZE</value>
24     </attribute>
25     <empty/>
26   </element>
27 </element>
28
29 </element>
```

Ohiko erauzleak erabiltzea eragozten duen beste arazo bat ere badago. Elementu batuk testu-balio bat duenean, eskeman hori adierazteko bi aukera daude: elementu horrek mota (testua, zenbakia, boolearra...) jakin horretako balioren bat izan behar duela esan, edo elementu horrek testu-balio jakin hori izan behar duela adierazi. Ikus dezagun adibide batekin. Demagun bi analisi dauzkagula. Bataren identifikadorea L-A-IZE-ARR-34 da eta bestearena L-A-ADI-SIN-495. Kasu horretan argi dago ez lukela zentzurik izango definizio-eskeman identifikadorearen balioak bietako bat izan behar duela esateak. Aldiz, identifikadoreak karaktere-kate edo *string* motakoa izan behar duela definitza izango litzateke zuzena, analisi berri batek identifikadore berria izango baitu. Baino, adibidez, kategoriaren balioaren kasuan, desberdina gertatzen da, kategoriaren balio posibleek multzo itxi bat osatzen baitute. Aurreko bi analisi horietan, esaterako, bataren kategoriaren balioa IZE izango da eta bestearena ADI. Baino, zentzuzkoa al litzateke kategoriak *string* motakoa izan behar duela esatea? Ez, kasu horretan kategoriak bietako bat izan behar duela esango genuke, IZE edo ADI. Erabakia, identifikadoreetan izan ezik, beste guztietan balio desberdinak balio posible bezala proposatzea izan da, eta analisiaren identifikadorearen kasuan, *string* motakoa izan behar duela definitza.

Lortu nahi den sistemak kontuan izan behar duen beste ezaugarri bat zera da, testu motako balioak izango dituzten elementu bakarrak `<str>` elementuak direla.

Azkenik, elementuen arteko ordena ere kontuan hartu beharrekoa da. Hau da, analisi bat baino gehiago aztertuta, beren elementuak beti ordena berean agertzen badira, definizio-eskeman ordena hori errespetatu behar dela zehaztuko da, hau da, elementuen arteko ordena esanguratsua dela. Aldiz, analisi desberdinatan elementuen ordena aldatzen bada, eta gainera ordena zehaztea ezinezkoa bada, elementuen ordena askea dela definituko da definizio-eskeman.

Betekizun horiek denak kontuan hartuz, algoritmo bat diseinatu da analisi multzo hendi batetik beren RNG definizio-eskema erauzteko.

### 3.2.2 Algoritmoa

Algoritmoa bi fasetan banatu da. Lehenbizikoan, analisi guztiak irakurri eta eredu bat eraikiko da dagokion informazio esanguratsu guzia bilduz. Bigarrenean, eredu hori RNG sintaxian adieraziko da, behar ditugun definizio-eskemak lortuz.

#### 1. fasea

Prozesatu XML dokumentuak eta sortu eredu bat informazio horrekin:

```
2 definitu Elementu: izen, attributuak, umeak, hautazkoDa, agerpenAnitzekoDa
   , testuMotakoDa;
3
4 /* Erro elementua errekurtsiboki prozesatzen du, edukia "erro" izeneko
   objektuan kargatzuz. */
5 prozedura nagusia(inputXMLDoc):
6   erro = Elementu();
7   prozesatu_elementua(inputXMLDoc->root, erro);
8 amprozedura;
9
10 /* XML elementu bat prozesatzen du: 1) Atributuak. 2) Elementua bera. 3)
    Umeak.
11   "xmlElem" parametra XML dokumentuko elementuaren instantzia da.
12   "elem" parametra, aldiz, eredu gordeko den objektua. */
13 prozedura prozesatu_elementua(xmlElem, elem)
14   /* Atributuak prozesatu. Atributuen informazioa elementuari dagokion
      objektuan kargatu. */
15   prozesatu_atributuak(xmlElem, elem);
16   /* Elementuaren izena kargatu. */
17   elem.izen = xmlElem.name;
18   /* Elementua str bada, bere edukia testu motakoa izango da. */
19   baldin elem.izen == "str" orduan
20     elem.testuMotakoDa = true;
21   else
22     /* Prozesatu ume-nodo bakoitza errekurtsiboki. */
23     bakoitzeko xmlElem->getChildren() as xmlChild egin
24       /* Elementua, analisi guztien artean, guraso horren ume gisa agertzen
          den lehenbiziko aldia bada elementu berri bat sortu eta bertan
          kargatu informazioa: */
25       baldin oraindik_prozesatu_gabe(xmlChild) orduan
26         ume = Elementu();
27         prozesatu_elementua(child, ume);
28         elem.gehituUmea(ume);
29         /* Gurasoa gehiagotan agertu bada, baina umea ez, umea hautazkoa
            dela esan nahi du. */
30         baldin ez gurasoaren_lehenbiziko_agerpena(elem) orduan
31           ume.hautazkoDa = true;
32           ambaldin;
33         /* Ume elementu hau beste analisiren batean, edo honetan bertan,
            agertu bada, kargatu dagokion objektua eta informazioa egunera.
            */
34       bestela:
35         ume = elem.lortuUmea(childXML);
36         prozesatu_elementua(ume, xmlChild);
37         /* Analisi honetan guraso jakin honen barruan dagoeneko horrelako
            beste ume bat aurkitu bada, agerpen anitzeko da. */
38         baldin elementuaren_umeen_arrean_dagoeneko_prozesatua(elem, ume)
39           orduan
40             ume.agerpenAnitz = true;
41             ambaldin;
41             ambaldin;
```

```
42     ambakoitzeko;
43     ambaldin;
44 amprozedura;
```

## 2. fasea

1. fasean eraikitako ereduak hartuta, idatzi RNG sintaxia erabiliz, RNG definizio-eskemak sortzeko:

```
1  /*
2   * Programa nagusiak aurreko fasean lortutako ereduak jaso eta goiburukoak
3   * idatzi ondoren, elementuari dagokion RNG kodea idatziko du errekurtsiboki
4   * . */
5
6 prozedura sortu_RNG(ereduaren_errno_elem):
7   idatzi_rng_goiburukoak();
8   sortu_rng_elementua(ereduaren_errno_elem);
9 amprozedura;
10
11 /* Elementu bat dagokion RNG kodea errekurtsiboki idazten du. */
12 prozedura sortu_rng_elementua(elem)
13   /* Elementua optional, oneOrMore edo ZeroOrMore bada, elementuaren
14   * aurretik idatzi. */
15   baldin elem.hautazkoDa eta elem.agerpenAnitzekoaDa orduan
16   idatzi('<optional>');
17   baldin not elem.hautazkoDa eta elem.agerpenAnitzekoaDa orduan
18   idatzi('<oneOrMore>');
19   baldin elem.hautazkoDa eta ez elem.agerpenAnitzekoaDa orduan
20   idatzi('<zeroOrMore>');
21   ambaldin;
22   /* Elementuaren etiketa zabaldu */
23   idatzi('<element name="elem.izen">');
24   /* Elementuaren atributuen kodea idatzi. */
25   bakoitzeko elem.atributuak as atributu egin
26   idatzi_atributuaren_rng(atributu);
27   ambakoitzeko;
28   /* Elementuak barruan testua badu, idatzi testu-motako eremua dela
29   * adierazten duen RNG kodea. */
30   baldin elem.testuMotakoaDa orduan
31   idatzi('<data type="string">');
32   ambaldin;
33   /* Umeen ordena esanguratsua ez bada, interleave elementuaren etiketa
34   * zabaldu lehenik. */
35   baldin ez elem.umeakOrdenatuta orduan
36   idatzi('<interleave>');
37   end_baldin;
38   /* Etiketak itxi aurretik, ume-elementu guztiekin berdina egin, banan-
39   * banan. */
```

```

33 bakoitzeko elem.umeak as ume egin
34     sortu_rng_elementua(ume);
35 ambakoitzeko;
36 /* Itxi zabaldutako etiketa guztiak. */
37 itxi_etiketak();
38 amprozedura;

```

## Elementuen arteko ordena

Elementu baten umeen arteko ordena esanguratsua bada, hori adierazi behar da definizio-eskeman. Esanguratsua ez bada, `interleave` elementu berezia jarri behar da elementuen guraso gisa.

Hainbat analisi izanda, elementu jakin baten umeen arteko ordena esanguratsua den edo ez, eta hala bada, ordena posible bat zein den jakiteko algoritmoa azalduko da jarraian.

Hasteko, adibide pare batekin ikusiko dugu arazoa zein den. 1. kasuan, elementu guztiak hautazkoak direla suposatuz, honakoa izango litzateke a elementuaren umeen arteko ordena posible bat:  $x \rightarrow z \rightarrow y \rightarrow w$ . 2. kasuan, aldiz, ez dago ordena bat zehazterik. Aztertu hurrengo kodea:

```

1 <!-- 1. kasua -->
2 <root>
3   <a>
4     <y/>
5     <w/>
6   </a>
7   <a>
8     <x/>
9     <y/>
10  </a>
11  <a>
12    <x/>
13    <z/>
14    <y/>
15  </a>
16 </root>
17
18 <!-- 2. kasua -->
19 <root>
20   <a>
21     <x/>
22     <y/>
23   </a>
24   <a>
25     <y/>
26     <z/>
27   </a>
28   <a>
29     <z/>
30     <x/>
31   </a>
32 </root>

```

Kasu hauetan erraza da jakitea, baina algoritmo bat behar da kasu guztiarako balioko duena. Lehenik eta behin, informazioa nola antolatu ikusiko dugu. Izan ere, grafo baten moduan ikus dezakegu eredu. Batetik, nodoak dauzkagu:  $nodoak = \{y, w, x, z\}$ . Bestetik, elkarren arteko ordena adierazten duten ertz zuzenduak dauzkagu:  $ertzak = \{y \rightarrow w, x \rightarrow y, x \rightarrow z, z \rightarrow y\}$ .

Grafoen teoria erabiliz erraza da elkarren arteko ordena esanguratsua den edo ez adieraztea, nahikoa baita grafoa ziklikoa den edo ez esaten duen algoritmo bat erabiltzea. Grafoak ziklorik badu, ordena ez da esanguratsua, ziklorik ez badu, posible da ordena jakin bat edo gehiago definitzea.

Grafoak ziklorik ez duela ondorioztatzen bada, eta beraz, elementuen arteko ordena esanguratsua dela, ordena posible bat bilatuko duen algoritmoa behar dugu. Lan hori ere oso simplea da grafoen teoria erabilita, nahikoa baita elementu guztietatik pasatzen den bide bat aurkitzea.

### 3.2.3 Arazoak

RNG eskemei dagokienez, elementuen arteko ordenarekin lotutako arazo nagusi bat izan dugu. Ordena esanguratsua denean ez dago arazorik, baina RNG eskemetan ordena askea dela adierazteko `interleave` elementu berezia erabili behar da, eta arazo bat ematen du gure analisien egitura dela eta. Lehen esan dugun moduan, analisien XML dokumentuetan elementu gehienen izena `fs` edo `f` izango denez, atributuaren balioen arabera bereizten ditugu elementuak. RNG lengoaiak, ordea, elementuen izena bakarrik hartzen du kontuan, eta beraz, `f` izeneko elementu guztiak berdinak dira beretzat, eta gauza bera gertatzen da `fs` elementuekin ere. Hori dela eta, `interleave` patroiak arazoak ematen ditu barruan izen bereko elementu bat baino gehiago dauzkanean, ez baitu onartzen `interleave` barruan elementurik errepikatuta agertzea.

Arazo hori gainetik kentzeko aukera bakarra ikusi dugu. Aurrebaldintza bat jarri dugu analisien egituraren: elementu ororen umeen arteko ordenak berdina izan behar du analisi guztieta. Hori errespetatzen bada, ez da `interleave` patroiaren beharrik izango, eta beraz, arazoak ez du eraginik izango.

## 3.3 Analisien normalizazioa

Urteak dira Ixa taldean testuak prozesatzen direla. Analisi linguistikoek, beraz, urteak daramatzate gure artean, eta urteetan zehar beren egitura aldatzen joan da, hobekuntzak gehituz eta gabeziak asetzuz. Hasiera batean analisien definizio-eskemak egin baziren ere, zaharkituta gelditu dira. Orain, definizio-eskema bat hutsetik sortzeko prozesuan, zenbait arazo aurkitu dira analisien edukian. Hori dela-eta, une egokia dela deritzogu arazo horiek konpondu eta analisiek egitura zuzen eta zehatz bat izan dezaten.

Aurkitu den arazoetako bat elementuek analisietan duten ordena izan da. Analisi desberdinatan, elementuak ordena desberdinatan agertzen dira. Horrek tresna gehienetan funtzionamendurako arazorik eragiten ez duen arren, koherentzia mantzentzearren bada ere, egokiena ordena bat definitzea izango litzatekeela ikusi da. Izatez, ordenatu ez ezik, ezaugarriak multzokatu ere egin dira, multzo logikotan banatu baitira ezaugarriak. Adibidez, kategoriaren araberako ezaugarriak multzo batean bildu dira, flexio-ezaugarriak (kasua, numeroa etab.) beste batean, etab. Hartara, ordena hutsa baino pauso bat haratago doan egitura logikoago bat lortu da, ezaugarrien listei dagokienean behintzat. Ezaugarriak multzo logikotan nola banatu den ikusteko joan eranskinetako 7.1 atalera.

Hori eta beste zenbait zuzenketa egin dira diseinuan, baita implementatutako definizio-eskeman ere, baina analisiak ezin izan dira egokituz, oraindik, proiektu honen amaierara iritsi garen honetan. Izatez, analisiengandik hurrengo bertsiorako konponketa horiek eginda egotea espero da, baina bitartean analisi zaharkituak ditugu esku artean. Definizio-eskemak, ordea, bertsio berrientzat pentsatuta egin dira. Hori dela-eta, ezin izan da balidatze-prozesua burutu. Prozesu hori garrantzitsua da oso, analisiengandik konplexua dela-eta, zaila baita esaten definizio-eskema erabat zuzena den, edo, aldig, kontuan hartu gabeko salbuespenen bat gelditu den. Horregatik, analisiengandik normalizazioa egitea izan da proiektu honen lanaren zati bat. Analisiengandik normalizazioa deritzogu analisiengandik bertsioei proiektu honetan zehar proposatu diren konponketak aplikatu eta analisiengandik lortzeko prozesuari. Lortutako analisiengandik normalizatuak proiektu honetarako bakarrik erabiliko dira, definizio-eskemak probatu ahal izateko soilik.

Hori egiteko XSLT script bat implementatu da, sarrera gisa hainbat analisi-fitxategi jaso eta emaitza gisa analisiengandik itzuliko dituena, proposatutako konponketak aplikatuz.

## 3.4 Analisi linguistikoen definizioa

Atal honetan analisiengandik definizio-eskema ulertzeko adibide batzuk landuko dira. Eskema osoa eranskinetan dago ikusgai, 7.2 atalean.

### 3.4.1 Segmentazioa

Segmentazioa da tokenei aplikatzen zaien lehenbikoko prozesamendua. Segmentazio-prozesua amaitzean, analisi bakoitza segmentazio-analisi bat edo gehiago izango ditu esleituta. Hiruzkak berak esaten duen bezala, segmentazio-prozesuan, tokenak segmentutan banatzen dira, horietako bakoitza informazio linguistikoz hornituz.

Har dezagun, adibide gisa, *guztiak* hitza. Ikusi, jarraian, hitz horren segmentazio-analisia:


```
1 <!-- Adibidea: guztiak -->
2
3 <fs id="S-A-DET-ORO-3" type="segmentazioa">
4     <f name="forma">
5         <str>guztiak</str>
6     </f>
7     <f name="lema-morfemak" org="list">
8         <fs type="lemaSeg">
9             <f name="sarrera">
10                <fs type="Gako">
11                    <f name="Sarrera">
12                        <str>guzti</str>
13                    </f>
14                    <f name="Homografo-Id">
15                        <nbr value="0"/>
16                    </f>
17                </fs>
18            </f>
19            <f name="ezaugariak">
20                <fs type="ezaugarri-lista">
21                    <f name="KAT">
22                        <sym value="DET"/>
23                    </f>
24                    <f name="AZP">
25                        <sym value="ORO"/>
26                    </f>
27                </fs>
28            </f>
29            <f name="twol">
30                <str>guzti</str>
31            </f>
32        </fs>
33        <fs type="morfSeg">
34            <f name="sarrera">
35                <fs type="Gako">
36                    <f name="Sarrera">
37                        <str>ak</str>
38                    </f>
39                    <f name="Homografo-Id">
40                        <nbr value="2"/>
41                    </f>
42                </fs>
43            </f>
44            <f name="ezaugariak">
45                <fs type="ezaugarri-lista">
46                    <f name="KAT">
47                        <sym value="DEK"/>
48                    </f>
49                    <f name="KAS">
50                        <sym value="ERG"/>
51                    </f>
52                    <f name="NUM">
53                        <sym value="S"/>
54                    </f>
55                    <f name="MUG">
56                        <sym value="M"/>
57                    </f>
58                    <f name="FSL" org="list">
59                        <sym value="@SUBJ"/>
60                    </f>
61                </fs>
62            </f>
63            <f name="twol">
64                <str>ak</str>
65            </f>
```

66      </fs>  
 67      </f>  
 68      </fs>

Gainetik ikusita XML egiturak konplexua dirudien arren, oinarrian, 9. irudiko egitura dauka. Ondoren, morfema edo lema bakoitzak informazio linguistiko zabala dauka. Informazio hori hiru ataletan banatzen da: lema edo morfemaren formari buruzko informazioa (EDBLko sarrera eta homografo-identifikadorea), ezaugarriak eta bi mailatako forma. Ezaugarriak dira lema edo morfemari buruzko informazio zabalena ematen dutenak, kategoria, azpikategoria, kasua etab. Halaber, bi mailatako formak segmentua nola deklinatuko den deskribatzen du. Hau da, hitza deklinatzerakoan abiapuntua zein den adierazten du, jasango dituen aldaketei buruzko informazioa emanez.

Adibide honetan, *guztiak* hitzari dagokionean, lema eta morfema bana daude definituta. Lema *guzti* determinatzailea izango da, eta morfema, *ak* deklinabide-atzizkia. Gainera, lemaren azpikategoria eta morfemaren kasua, numeroa eta mugatasunaren inguruko informazioa ematen da ezaugarrien artean. Bi mailatako formek, kasu hauetan, ez dute informazio gehigarririk eskaintzen.

Definizio-eskema osatzerakoan kontuan hartu behar izan dira hainbat gauza. Batetik, forma definitzea ezinbesteko delarik eta nahi adina lema edo morfema defini daitezkeela (bat gutxienez). Lema eta morfemen barne-egitura berdina da. Derrigorrezko eremuak dira sarrera, ezaugarriak eta *two1* (bi mailatako forma), eta badago adibide honetan agertu ez den hautazko eremu bat ere, aldaera. Eskema konplexu egiten duen ezaugarri bat ere badago, izan ere, definituko diren ezaugarriak desberdinak izango baitira kategoriaren arabera. Hori dela-eta, 3.2 atalean azaldu den sistemaz baliatuz, kategoria bakoitzak zein ezaugarri definitza onartzen duen aztertu behar izan da. Horretarako, sistema ego-kitu da kategoria jakin bat pasatuta, kategoria horretako analisiak bakarrik kontuan hartzen. Horrela, prozesua kategoria posible adina bider errepikatuta, kategoria bakoitzeko analisiak har dezakeen egitura zehatza erauzi ahal izan da.



**9 irudia:** “*guztiak*” hitzaren segmentazio-analisiaren egitura orokorra.

### 3.4.2 Morfosintaxia

Morfosintaxi mailako analisietan (Aduriz et al., 2000) hitzei informazio morfologikoa gehitzen zaie. Alde batetik, hitzak morfematan banatzen dira, horietako bakoitzaren informazio linguistikoa adieraziz. Bestalde, goi-mailako ezaugarriak gehitzen zaizkio hitzari, hau da, hitzak berak morfemetatik jasotako ezaugarriak. Azkenik, hitzari dagokion lema ere adierazten da analisi hauetan.

Adibide bezala aurreko ataleko berbera erakutsiko da. Hona hemen *guztiak* hitzari dagokion analisi morfosintaktikoa:

```

1 <!-- Adibidea: guztiak -->
2
3 <fs id="M-A-DET-ORO-13" type="analisia">
4   <f name="lema-osatua">
5     <str>guzti</str>
6   </f>
7   <f name="forma">
8     <str>guztiak</str>
9   </f>
10  <f name="goimailako-ezaugarriak">
11    <fs type="goimailako-ezaugarri-lista">
12      <f name="KAT">
13        <sym value="DET"/>
14      </f>
15      <f name="AZP">
16        <sym value="ORO"/>
17      </f>
18      <f name="KAS">
19        <sym value="ABS"/>
20      </f>
21      <f name="NUM">
22        <sym value="P"/>
23      </f>
24      <f name="MUG">
25        <sym value="M"/>
26      </f>
27      <f name="FSL" org="list">
28        <sym value="@OBJ"/>
29        <sym value="@PRED"/>
30        <sym value="@SUBJ"/>
31      </f>
32    </fs>
33  </f>
34  <f name="osagaiak" org="list">
35    <fs type="osagaia">
36      <f name="oina">
37        <fs type="lema">
38          <f name="ezaugarriak">
39            <fs type="ezaugarri-lista">
40              <f name="KAT">
41                <sym value="DET"/>
42              </f>
43              <f name="AZP">
44                <sym value="ORO"/>
45              </f>
46            </fs>
47          </f>
48          <f name="twol">
```

```

49          <str>guzti</str>
50      </f>
51      <f name="sarrera">
52          <fs type="Gako">
53              <f name="Sarrera">
54                  <str>guzti</str>
55              </f>
56              <f name="Homografo-Id">
57                  <nbr value="0"/>
58              </f>
59          </fs>
60      </f>
61      </fs>
62  </f>
63  <f name="morfemak" org="list">
64      <fs type="morfema">
65          <f name="ezaugarriak">
66              <fs type="ezaugarri-lista">
67                  <f name="KAT">
68                      <sym value="DEK"/>
69                  </f>
70                  <f name="MUG">
71                      <sym value="M"/>
72                  </f>
73                  <f name="NUM">
74                      <sym value="P"/>
75                  </f>
76                  <f name="KAS">
77                      <sym value="ABS"/>
78                  </f>
79                  <f name="FSL" org="list">
80                      <sym value="@OBJ"/>
81                      <sym value="@PRED"/>
82                      <sym value="@SUBJ"/>
83                  </f>
84          </fs>
85      </f>
86      <f name="twol">
87          <str>ak</str>
88      </f>
89      <f name="sarrera">
90          <fs type="Gako">
91              <f name="Sarrera">
92                  <str>ak</str>
93              </f>
94              <f name="Homografo-Id">
95                  <nbr value="1"/>
96              </f>
97          </fs>
98      </f>
99      </fs>
100     </f>
101     </fs>
102 </f>
103 </fs>
```

Analisiaren egitura orokorra 10. irudian ageri dena da. Segmentazio-analisietai segmentuei (lema-morfemei) zegozkienak orain osagaietan definituta daude. Hau da, hitza osagaietan banatuta egon daiteke, eta osagaietako bakoitza morfemetan. Adibide honetan osagai bakarra dago, eta osagaia bitan banatu da: batetik, *guzti*, osagaiaren oina izango dena, eta bestetik, *ak*, morfema. Morfema bakoitzak sarrera, ezaugariak eta bi mailatako

forma izaten jarraitzen du. Goi-mailako ezaugarriei dagokienean, kasu honetan, oinaren kategoria da goratu dena. Hau da, *guzti* oinaren kategoria determinatzailea eta *ak* morfemarena deklinatzalea zen moduan, *guztiak* hitz osoaren kategoria determinatzailea da. Azpikategoria ere oinarena goratu da, baina goratu diren kasua, numeroa, mugatasuna eta funtzio sintaktikoak *ak* morfemarenak izan dira. *guztiak* hitzaren lema osatua *guzti* da orain.



**10 irudia:** “*guztiak*” hitzaren morfosintaxi-analisiaren egitura orokorra.

Definizio-eskemari begira, kontuan hartu beharreko kontu pare bat. Batetik, lema-osatua eremua hatuazkoa da, baita adibide honetan ageri ez den aldaera-osatua ere. Segmentazioko analisietan ageri zen lema-morfemak eremuaren ordez, orain, osagaiak eremua dago. Barruan nahi adina osagai egon daitezke, eta horietako bakoitzak hautazko oin bat eta hainbat morfema izan ditzake. Gainera, morfema bakoitzak bere ezaugarriak dituen bezala, osagai bakoitzak ere bereak izan ditzake definituta. Kontuan izan behar da osagaien oin edo morfemen ezaugarriak segmentazioko berdinak izan daitezkeela, baina goi-mailako ezaugarriak, aldiz, aldatu egiten direla. Izan ere, goimailako ezaugarriak ez dira kategoriaren araberakoak, morfema desberdinatik jasotzen baitira ezaugarriak. Gainera, kategorietako batzuek besterik ezin dute izan goratuak. Ondorioz, segmentazioko ezaugarrien definizioak berrerabili egin dira osagaien ezaugarrietarako, baina goi-mailako ezaugarriak birdefinititu egin behar izan dira. Amaitzeko, osagaietik kango ere hautazko oina eremua dago, osagai baten oina izan ordez, hitz osoarena izango litzatekeena.

Beste adibide bat erakutsiko da jarraian, aurrekoan baino konplexuagoa. Adibideko analisia *bildutakoek* hitzari dagokio. Adibide honetan, arestian aipatutako eremu gehienak daude definituta:

```

1 <!-- Adibidea: bildutakoek -->
2
3 <fs id="M-A-ADI_IZEELI-1" type="analisia">
4   <f name="lema-osatua">
5     <str>bildu</str>
6   </f>
7   <!-- ... -->
8   <f name="osagaiak" org="list">
9     <fs type="osagaia">

```

```
10      <f name="oina">
11          <fs type="lema">
12              <f name="ezaugarriak">
13                  <fs type="ezaugarri-lista">
14                      <f name="KAT">
15                          <sym value="ADI"/>
16                      </f>
17                      <!-- ... -->
18                  </fs>
19              </f>
20              <f name="twol">
21                  <str>bil</str>
22              </f>
23              <f name="sarrera">
24                  <fs type="Gako">
25                      <f name="Sarrera">
26                          <str>bildu</str>
27                      </f>
28                      <!-- ... -->
29                  </fs>
30              </f>
31          </fs>
32      </f>
33      <f name="ezaugarriak">
34          <fs type="ezaugarri-lista">
35              <f name="KAT">
36                  <sym value="ADI"/>
37              </f>
38              <!-- ... -->
39          </fs>
40      </f>
41      <f name="morfemak" org="list">
42          <fs type="morfema">
43              <f name="ezaugarriak">
44                  <fs type="ezaugarri-lista">
45                      <f name="KAT">
46                          <sym value="AMM"/>
47                      </f>
48                      <!-- ... -->
49                  </fs>
50              </f>
51              <f name="twol">
52                  <str>tu</str>
53              </f>
54              <f name="sarrera">
55                  <fs type="Gako">
56                      <f name="Sarrera">
57                          <str>tu</str>
58                      </f>
59                      <!-- ... -->
60                  </fs>
61              </f>
62          </fs>
63          <fs type="morfema">
64              <!-- ... -->
65              <f name="sarrera">
66                  <fs type="Gako">
67                      <f name="Sarrera">
68                          <str>ta</str>
69                      </f>
70                  </fs>
71              </f>
72          </fs>
73          <fs type="morfema">
74              <!-- ... -->
```

```
75      <f name="sarrera">
76          <fs type="Gako">
77              <f name="Sarrera">
78                  <str>ko</str>
79                  </f>
80                  <!-- ... -->
81          </fs>
82      </f>
83  </fs>
84      <fs type="osagaia">
85          <f name="oina">
86              <fs type="lema">
87                  <!-- ... -->
88                  <f name="sarrera">
89                      <fs type="Gako">
90                          <f name="Sarrera">
91                              <str>0</str>
92                          </f>
93                      <f name="Homografo-Id">
94                          <nbr value="14"/>
95                      </f>
96                  </fs>
97          </f>
98      </fs>
99      </f>
100     </fs>
101     <f name="ezaugariak">
102         <fs type="ezaugari-lista">
103             <f name="MUG">
104                 <sym value="M"/>
105             </f>
106             <!-- ... -->
107         </fs>
108     </f>
109     <f name="morfemak" org="list">
110         <fs type="morfema">
111             <!-- ... -->
112             <f name="sarrera">
113                 <fs type="Gako">
114                     <f name="Sarrera">
115                         <str>0</str>
116                     </f>
117                     <!-- ... -->
118             </fs>
119         </f>
120     </fs>
121     <fs type="morfema">
122         <!-- ... -->
123         <f name="sarrera">
124             <fs type="Gako">
125                 <f name="Sarrera">
126                     <str>ek</str>
127                     </f>
128                     <!-- ... -->
129             </fs>
130         </f>
131     </fs>
132     </f>
133 </fs>
134 </f>
135 </fs>
136 </f>
```

Adibide honen berezitasun aipagarrienetako bat, aurrekoarekin alderatuta, hitzaren oinaren definizioa da. Kasu horretan, *bildu* da oina, eta bere ezaugariak eta bi mailatako forma ere definituta dauzka. Horrez gain, osagaietan orain bi osagai daude, bata *bildutako* zatiari dagokiona, eta bestea, *ek* zatiari dagokiona. Lehenak oina, *bil*, eta hiru osagai, *tu*, *ta* eta *ko*, ditu. Bigarrena, aldiz, berezia da. Izan ere, *ek* soilik da osagaiaren testu-forma, baina hain motza izanagatik ere oina eta bi morfema ditu. Gertatzen dena da oina eta morfemetako bat elidituta daudela, hau da, bi elipsi daudela.

### 3.4.3 Lematizazioa

Euskarazko lematizatzaleak (Aduriz et al., 1996) morfosintaxi mailako analisiekin lan egin eta lematizazio-analisiak sortzen ditu. Hauek morfosintaxi mailakoak baino simpleagoak dira, lema mailan lan egiten dutenez, goi-mailako informazioarekin bakarrik gelditzen baitira, gainontzekoa baztertuz.

Hona hemen aurreko bi kasuetan ikusi den adibidea, oraingoan, lematizazio mailan analizatuta:

```

1 <!-- Adibidea: guztiak -->
2
3 <fs id="L-A-DET-ORO-13" type="lematizazio">
4   <f name="forma">
5     <str>guztiak</str>
6   </f>
7   <f name="lema-osatua">
8     <str>guzti</str>
9   </f>
10  <f name="ezaugari-morfologikoak">
11    <fs type="goimailako-ezaugari-lista">
12      <f name="KAT">
13        <sym value="DET"/>
14      </f>
15      <f name="AZP">
16        <sym value="ORO"/>
17      </f>
18      <f name="KAS">
19        <sym value="ABS"/>
20      </f>
21      <f name="NUM">
22        <sym value="P"/>
23      </f>
24      <f name="MUG">
25        <sym value="M"/>
26      </f>
27    </fs>
28  </f>
29 </fs>
```

Oraingoan, lema eta formaz gain, morfosintaxi mailako analisian goi-mailako ezaugari zirenak bakarrik jaso dira, osagaietan banatutako informazio linguistiko guztia baztertuz. Gainera, goimailako ezaugarietatik ere ez da informazio guztia mantendu, funtzio sintakti-

koak baztertu egin baitira. Beraz, informazio garrantzitsuena besterik ez da bildu, analisia asko simplifikatuz. Egitura orokorra 11. irudian ikus daiteke.



### 11 irudia: “guztiak” hitzaren lematizazioaren egitura orokorra.

Morfosintaxian ikusi den beste adibidea ere azalduko da jarraian. Morfosintaxi mailan oso analisi luzea eta konplexua zen. Orain aldiz, goi mailako ezaugarriak bakarrik jaso direnez, erruz simplifikatu da analisia:

```

1 <!-- Adibidea: bildutakoek -->
2
3 <fs id="L-A-ADI-SIN-760" type="lematizazioa">
4   <f name="forma">
5     <str>bildutakoek</str>
6   </f>
7   <f name="lema-osatua">
8     <str>bildu</str>
9   </f>
10  <f name="ezaugarri-morfologikoak">
11    <fs type="goimailako-ezaugarri-lista">
12      <f name="KAT">
13        <sym value="ADI"/>
14      </f>
15      <f name="AZP">
16        <sym value="SIN"/>
17      </f>
18      <f name="ADM">
19        <sym value="PART"/>
20      </f>
21      <f name="KAS">
22        <sym value="ERG"/>
23      </f>
24      <f name="NUM">
25        <sym value="P"/>
26      </f>
27      <f name="MUG">
28        <sym value="M"/>
29      </f>
30      <f name="ADOIN">
31        <str>bil</str>
32      </f>
33    </fs>
34  </f>
35 </fs>

```

Dena dela, beti ez da osagaien inguruko informazio guztia bazterzen. Lematizazio mailan ere posible da osagai bakoitzaren informazioa agertzea. Hala ere, osagai bakoitzak

daraman informazioa simpleagoa da morfosyntaxian baino, oinaren forma eta goi-mailako ezaugarriak baitira gordetzen diren bakarrak. Hurrengo adibidean ikus daiteke aipatutako; *zena* hitzak bi osagai ditu: *zen* adizkia, batetik, eta absolutiboan doan elipsia, bestetik.

```

1 <!-- Adibidea: zena -->
2
3 <fs id="L-A-ADL_IZEELI-1" type="lematizazioa">
4   <f name="forma">
5     <str>zena</str>
6   </f>
7   <f name="lema-osatua">
8     <str>izan</str>
9   </f>
10  <f name="ezaugarri-morfologikoak">
11    <fs type="goimailako-ezaugarri-lista">
12      <f name="KAT">
13        <sym value="ADL_IZEELI"/>
14      </f>
15      <f name="KAS">
16        <sym value="ABS"/>
17      </f>
18      <f name="NUM">
19        <sym value="S"/>
20      </f>
21      <f name="MUG">
22        <sym value="M"/>
23      </f>
24      <f name="MDN">
25        <sym value="B1"/>
26      </f>
27      <f name="NOR">
28        <sym value="HURA"/>
29      </f>
30    </fs>
31  </f>
32  <f name="osagaiak" org="list">
33    <fs type="osagaia">
34      <f name="oina">
35        <str>zen</str>
36      </f>
37      <f name="ezaugarri-morfologikoak">
38        <fs type="goimailako-ezaugarri-lista">
39          <f name="KAT">
40            <sym value="ADL"/>
41          </f>
42          <f name="ERL">
43            <sym value="ERLT"/>
44          </f>
45          <f name="MDN">
46            <sym value="B1"/>
47          </f>
48          <f name="NOR">
49            <sym value="HURA"/>
50          </f>
51        </fs>
52      </f>
53    </fs>
54    <fs type="osagaia">
55      <f name="oina">
56        <str>0</str>
57      </f>
```

```
58     <f name="ezaugarri-morfologikoak">
59         <fs type="goimailako-ezaugarri-lista">
60             <f name="MUG">
61                 <sym value="M"/>
62             </f>
63             <f name="NUM">
64                 <sym value="S"/>
65             </f>
66             <f name="KAT">
67                 <sym value="ELI"/>
68             </f>
69             <f name="KAS">
70                 <sym value="ABS"/>
71             </f>
72         </fs>
73     </f>
74 </fs>
75 </f>
76 </fs>
```

## 4 Armiarma: Analisi linguistikoen sorkuntza eta kontsulta-ahalmena

Proiektu honen helburuetako bat anotazio linguistiko konplexuak kudeatzeko Armiarma aplikazioari bi funtzionalitate berri gehitzea izan da: corpusaren gainean kontsultak egiteko sistema berria implementatzea eta analisi berrien eskuzko sorkuntza ahalbidetzea.

Bi funtzionalitateek ezaugarri komun bat dute, alegia, analisien definizioa zehazten duten RNG eskemak erabili behar direla eginkizuna behar bezala betetzeko. Hau da, kontsulta-sistemak gai izan behar du une bakoitzean proposatu behar dituen ezaugarriak ordura arte zehaztu direnen araberakoak izateko, eta gauza bera egin behar du analisiak eskuz sortzen lagunduko duen funtzionalitateak ere, une bakoitzean erabiltzaileari eskatuko dizkion eremu/balioak aurrez definitutako araberakoak izan beharko baitute. Hori dela-eta, analisien RNG eskemak irakurri eta parseatzeko liburutegi bat garatu da, funtzionalitate berrien garapena errazteko.

Atal honetan RNG eskemak kudeatzeko liburutegia azalduko da lehenik, zein eginkizun betetzen dituen argituz. Ondoren, Armiarmari gehitu zaizkion bi funtzionalitateak xehe-tasun gehiagorekin azalduko dira, kontsulten sistemaren hobekuntza lehenik, eta analisien eskuzko sorkuntzan laguntzeko sistema ondoren.

### 4.1 RNG eskemak kudeatzeko liburutegia

Analisi linguistikoak Relax NG (RNG) lengoiaiaz idatzitako eskema batean definitu dira. Arazoa da tresna laguntzaile edo API<sup>4</sup> eskaintza urria dagoela lengoiaia horretan idatzi-tako eskemekin lan egiteko. Gainera, bai analisi berrien sorkuntzan eta bai kontsulten definizioan, RNGz idatzitako eskemak erabili behar ditu sistemak. Hori dela-eta, API bat diseinatu eta implementatu da zeregin horietan laguntzeko. API honek laguntza eskaini behar du analisien definizio-eskemak erabiltzeko garaian.

APIaren funtzionamendua azalduko da atal honetan. Bere zereginetako bat fitxategi desberdinaren definitutako RNG eskemak datu-egitura batean biltzea da. Horretarako FSSchema klasea eskaintzen du, eraikitzailean bertan eskemaren fitxategi nagusiaren kokapena eta analisi-maila<sup>5</sup> pasatuta fitxategi guztien edukia bildu eta objektuaren barruko eremu batean eduki guztia antolatu eta gordeko duena. Maila zehaztea beharrezkoa da, izan ere, segmentazio, morfosintaxia eta lematizazio mailako eskemak, hirurak, eskema berean bilduta baitaude. Behin hori eginda, FSSchema klaseak eskaintzen dituen metodoak erabilgarri egongo dira:

<sup>4</sup>Ingelesez Application Programming Interface. Programatzeko interfaze bat izan ohi da, software-modulu desberdinak elkarren artean komunikatzeko. Askotan, zeregin batean laguntzeko eta maila abstraktuago batean lan egiteko eskaintzen den liburutegi bezala erabiltzen da.

<sup>5</sup>Analisi-maila segmentazioa (SEG), morfosintaxia (MORF) edo lematizazioa (LEM) izan daiteke.

- `string getId()`: Analisiaren identifikadorea itzultzen du.
- `Node getRootNode()`: Analisiaren erro-elementua itzultzen du. Beharrezkoa da analisi bat goitik behera prozesatu nahi denean, errotik abiato eta nodo bakoitzak banan-banan prozesatzeko. Nodo bakoitzak bere barruan testu soila edo beste nodo zerrenda bat izan dezake. Nodoekin lan egiteko ere `Node` klasea eskaintzen da, aurrerago azalduko dena.
- `List<string> getKategoriak()`: Kategoria posibleen zerrenda itzultzen du. Oso lagungarria da kontsulten formularioa implementatzeko garaian, beti eskaini behar baitira kategoria posible guztiak kategoriaren balioa eskatzen denean, eta ondoren, kategoriaren balioa izango da hurrengo eremuak baldintzatuko dituena.
- `List<Node> getEzaugarriak(string Kategoria)`: Metodo honek, kategoria bat emanda, kategoria horretako analisiek izan ditzaketen ezaugarriak itzultzen ditu. Morfosintaxi eta lematizazio mailetako analisietan goi-mailako ezaugarriak itzuliko ditu, eta segmentazio mailakoetan, aldiz, ezaugarri arruntak. Kontsultasistemaren implementaziorako da interesgarriena, izan ere, erabiltzaileak kategoria aukeratzen duenean hasten baita sistema eskemak irakurtzen. Kontsulta zehazteko garaian, ezaugarrien balioak dira erabiltzaileak definituko dituenak, eta beraz, ezaugarrien atala da aplikazioak eskemetatik jaso behar izango duena.

Ikus daitekeen bezala, eragiketa arruntek `Node` motako objektuak itzultzen dituzte askotan. `Node` motako objektu bakoitzak eskemako nodo bat adierazten du, edozein motatako dela ere (`element`, `optional`, `oneOrMore` etab.), eta elementu horien informazioa jasotzeko eragiketak eskaintzen ditu:

- `string getMota()`: Elementua RNG lengoaiaren zein elementu motakoa den itzultzen du. Hauek dira mota posiblak: `element`, `optional`, `choice`, `zeroOrMore`, `oneOrMore`, `data` eta `value`.
- `string getTag()`: Elementu bakoitzak etiketa bat dauka esleituta, formularioak sortzean erabiltzaileari erakutsi beharreko izena izango dena. Metodo honek etiketa hori itzultzen du.
- `string getChildrenTag()`: Askotan, elementu baten edukia deskribatu behar da hitzez. Adibidez, analisien eskuzko sorkuntzan, `optional` motako elementu batean gaudenean, barruko edukia definitu nahi den galdetuko zaio erabiltzaileari. Horretarako, ordea, erabiltzaileak jakin behar du zein den eduki hori. Metodo honek elementuaren umeen etiketekin osatutako etiketa bat itzultzen du.
- `List<Node> getChildren()`: Nodoaren umeekin osatutako lista bat itzultzen du.

- `string getRefName()`: Ref motako elementuetan soilik erabilgarri. Ref elementuak erreferentzia egiten dion `define` moduluaren izena itzultzen du.
- `string getElementName()`: Element motako nodo batekin bakarrik erabili daiteke. Elementuaren izena itzultzen du, hau da, elementuaren name atributua-ren edukia.
- `string getValue()`: Value motako nodo batekin bakarrik erabili daiteke. Elementuaren testu-edukia itzultzen du.
- `List<string> getValues()`: Elementuaren izena sym duten Element motako nodoetan bakarrik erabili daiteke. Sym elementu horrek har ditzakeen balio posibleak itzultzen ditu.

## 4.2 Analisiengoko sorkuntza Armiarman

Lexikoaren Behatokia proiektuan automatikoki prozesatzen dira testuak. Prozesu automatiko horretatik lortzen dira testuko hitz bakoitzaren analisi linguistikoak. Noski, prozesua automatikoa denez, baliteke batzuetan analisiak zuzenak ez izatea. Honez gero aipatu den moduan, hitz batek analisi posible bat baino gehiago izan dezake testuinguruaren arabera, eta hortaz, testuko hitz bakoitzarentzat analisi bat baino gehiago sortuko dira testua prozesatzean. Hitz jakin batentzat zuzena den analisirik sortu ez bada, erabiltzaileak analisi hori eskuz sortzeko aukera izan behar du.

Analisiak oso konplexuak dira haien egiturari dagokienez. Eremu asko izan ditzakete beren izaeraren arabera, eta eskuz sortzeko garaian idatzi behar litzatekeen XML kodea ugaria eta astuna izango litzateke. Hori dela-eta, Armiarmak analisiak sortzen laguntzen duen funtzionalitate bat eskaintzen du. Funtzionalitate hau erabili ahal izateko, kontsulta bat egin ondoren, hitz baten gainean klikatu behar da bere analisi posibleak lortzeko. Zerrenda horrekin batera, analisi berri bat sortzeko esteka agertuko da. Bertan klikatuta analisi berri bat sortzen lagunduko duen tresna martxan jarriko da.

Analisiengoko sorkuntzarekin laguntzeko Armiarmak formulario dinamiko bat eskaintzen du. Formulario horrek erabiltzailea gidatuko du analisiaren sorkuntzan zehar, unean uneko eremuengoko balioak sartzeko eskatuz. Eskatu beharreko eremuak, ordea, dinamikoki aukeratu behar dira, erabiltzailea sartuz doan balioen arabera aldatu egingo baitira. Hori egiteko analisiengoko definizio-eskemak erabiltzen dira. Aplikazioak eskemak irakurriko ditu, honela, beren egitura xehetasunez ezagutzeko. Horrela, une bakoitzean sistemak erabakiko du zein den eskatu beharreko hurrengo eremu. Zenbait kasutan, baliteke hurrengo pausoan definitu beharreko eremu posibleak bat baino gehiago izatea. Adibidez, eremu jakin bat hautazko bezala definituta badago, erabiltzaileak izango du eremu hori definitu nahi duen edo zuzenean hurrengoarekin jarraitu behar den erabakitzeko ardura. Horrelako kasuetan erabiltzaileari galdeztuko zaio, formularioan bertan, hautazko eremu definitu nahi duen edo

ez. Antzoko kasu gehiago ere badaude, adibidez, hainbat eremuren artean bakarra aukeratu behar denean, edo eremu bat nahi adina aldiz errepika daitekeenean zenbatetan errepikatu nahi den adierazi behar denean. Sorkuntza-prozesua amaitzean sistemak dagokion XML kodea sortuko du, eta analisien datu-basean analisi berria txertatu.

#### 4.2.1 Algoritmoa

Idea simplea da: analisien definizio-eskema errekurtsiboki prozesatzen joatea elementu bakoitzari dagokion XML kodea sortuz. Zenbaitetan erabiltzailearen parte-hartzea beharrekoa da, balioak sartzeko (data motako elementuetan) edota optional edo oneOrMore bezalako elementuetan zein erabaki hartu jakiteko. Jarraian ikus daiteke algoritmoa:

```

1  /* Programa nagusia. FSSchema motako elementu bat sortzen du eta erroari
2   * dagokion XML kodea sortzen du. Irekiera eta itxiera etiketen artean
3   * barruko elementu guztiak prozesatzeko deia egiten du, hauek,
4   * errekurtsiboki, gauza bera egin dezaten beren edukiarekin. */
5
6 prozedura nagusia(schema_path, maila)
7   /* FSSchema objektua sortu eta kargatu */
8   schema = FSSchema(schema_path, maila);
9   /* Erro elementua lortu eta dagokion XML kodea sortu. */
10  root = schema->get rootNode();
11  analysis = "";
12  openTag(analysis, root->get ElementName());
13  /* Etiketa zabaldu ondoren, itxi aurretik, barruko elementuak prozesatuko
14   * dira, hauek sortutako kodea erro elementuaren barruan gelditu dadin. */
15  processChildren(root);
16  closeTag(analysis, root);
17 amprozedura;
18
19  /* Nodo baten ume guztiak prozesatzen ditu banan banan, beren XML kodea
20   * sortuz. */
21 prozedura processChildren(Node node)
22   bakoitzeko node->get Children() as child egin
23   /* Elementu motaren arabera prozesua desberdina da. Beraz, dagokion
24   * funtzioari dei egin. */
25   switch child->getMota() non
26     /* Ref motako nodo batera iristen denean, dagokion define elementura
       * jauzi egin eta jarraitu prozesatzen. */
27     baldin ''ref'': processRefNode(child, schema);
28     /* Element motako nodo batean, dagokion irekiera etiketa sortu,
       * barruko edukia errekurtsiboki prozesatu, eta etiketa itxi. */
29     baldin ''element'': processElementNode(child, schema);
30     /* Optional motako elementu batean, erabiltzaileari galdu behar zaio
       * ea edukia definitu nahi duen. */
31     baldin ''optional'': processOptionalNode(child, schema);
32     /* Choice motako elementu batean, barruko elementuen artean bakarra
       * sortzen da. */
33 
```

```

    aukeratzeko eskatu behar zaio erabiltzaileari. Aukeratutako
    elementua prozesatuko da soilik. */
27   baldin ``choice'': processChoiceNode(child, schema);
28   /* ZeroOrMore motako elementu batean, edukia nahi adina aldiz
      definitzen utziko zaio erabiltzaileari, iterazio bakoitzean edukia
      berriz definitu nahi duen galdetuz. */
29   baldin ``zeroOrMore'': processZeroOrMoreNode(child, schema);
30   /* OneOrMore motako elementu batean, edukia gutxienez behin definituko
      da, eta hortik aurrera, iterazio bakoitzean erabiltzaileari
      galdetuko zaio edukia berriz definitu nahi duen. */
31   baldin ``oneOrMore'': processOneOrMoreNode(child, schema);
32   /* Data motako elementu batean, erabiltzaileari balio bat sartzeko
      eskatuko zaio. */
33   baldin ``data'': processDataNode(child, schema);
34   /* Value motako nodo batean, zuzenean bere balioa analisiaren kodean
      gehituko da. */
35   baldin ``value'': processValueNode(child, schema);
36   amswitch;
37   ambakoitzeko;
38   amprozedura;

```

Hau dena ulertzeko adibide simple bat azalduko da jarraian. Eman dezagun analisiaren definizio-eskema jarraian ageri dena bezain simplea dela:

```

1  <start>
2  <!-- Analisiaren definizioa -->
3  <element name="fs">
4    <!-- Analisi mota -->
5    <attribute name="type">
6      <value>segmentazioa</value>
7    </attribute>
8    <!-- Analisiaren identifikadorea -->
9    <attribute name="id">
10      <data type="string"/>
11    </attribute>
12    <!-- Analisiaren kategoria -->
13    <element name="f">
14      <attribute name="name">
15        <value>KAT</value>
16      </attribute>
17      <element name="sym">
18        <attribute name="value">
19          <choice>
20            <value>ADB</value>
21            <value>ADI</value>
22            <value>IZE</value>
23          </choice>
24        </attribute>
25        <empty/>
26      </element>
27    </element>
28  </start>

```

Kasu horretan, honakoa izango litzateke prozesua. Lehenik, erro elementua eskuratu eta dagokion etiketa zabalduko litzateke, baina etiketa zabaltzearekin batera atributuak ere prozesatu behar dira, etiketa barruan baitoaz. Kasu honetan, lehenbiziko atributuaren kasuan ez da erabiltzailearen parte-hartzerik behar, atributu-izena `type` baita eta balioa `segmentazioa`. Bigarren atributuaren kasuan, aldiz, erabiltzaileari galdu beharko zaio, `id` atributuaren edukia data motakoa baita. Horrek esan nahi du `string` motako balioaren bat izango dela, baina erabiltzaileak adierazi behar du balio zehatza zein den. Behin hori eginda, erro-elementuaren etiketa sortuko litzateke:

```
1 <fs type="segmentazioa" id="M-A-IZE-ARR-234">
```

Jarraian, etiketa itxi aurretik, elementu umeak prozesatzeari ekingo zaio, kasu honetan kategoriari dagokiona. Nodoa element motakoa denez, elementuari dagokion etiketa zabalduko da, honelako zerbaite lortuz:

```
1 <fs type="segmentazioa" id="M-A-IZE-ARR-234">
2   <f name="KAT">
```

Prozesuarekin jarraituz, azken nodoaren umea prozesatzeari ekingo zaio. Nodo berri hau ere element motakoa da, bere balioa `sym` delarik. Beraz, elementu honi dagokion kodea sortu beharko litzateke, baina bere atributua `choice` motakoa dela ikusita, erabiltzaileari honako galdera egingo zaio: *KAT ezaugarriventzat balio hauetako bat aukeratu: ADB, ADI edo IZE*. Demagun erabiltzaileak ADI aukeratu duela, beraz, ume-nodoen artean bigarrena aukeratuko da:

```
1 <fs type="segmentazioa" id="M-A-IZE-ARR-234">
2   <f name="KAT">
3     <sym value="ADI"/>
```

Elementu guztiak prozesatu direnez, etiketak ixtea bakarrik gelditzen da. Honakoa litzateke sortutako analisia:

```
1 <fs type="segmentazioa" id="M-A-IZE-ARR-234">
2   <f name="KAT">
3     <sym value="ADI"/>
4   </f>
5 </fs>
```

## 4.3 Analisi-kontsulten hobekuntza Armiarman

Armiarmaren oinarrizko funtzionalitatea corpusen gainean kontsultak egitearena da. Erabiltzaileak kontsulta bat definituko du zenbait baldintza zehatztuz eta sistemak corpus osoan zehar baldintza horiek betetzen dituzten agerpenak erakutsi pantailan.

Kontsultak egiteko hiru terminoko leihoa bat definitzeko aukera eskaintzen da. Orain arte, termino bakoitza definitzeko, forma edo lema gain kategoria eta azpikategoria bakan rrik zehaztu zitezkeen. Gainera, inkonsistentziak sor zitezkeen, azpikategoriaren aukeren artean azpikategoria guztiak agertzen baitziren aukeratutako kategoria edozein zela ere. Hitz batek, ordea, ezaugarri asko izan ditzake kategoria eta azpikategoriaz gain.

Ezaugarriak elkarren menpe daude, askotan. Hau da, hitz batek ezaugarri jakin bat izan dezake, beste ezaugarri jakin baten balioa dagokiona bada. Adibidez, hitz batek numeroa-mugatasuna (NMG) ezaugarria bere kategoria *determinantea* bada soilik izango du. Baliteke ere ezaugarri bat beste ezaugarri jakin bat agertzen ez bada bakarrik agertu ahal izatea. Adibidez, hobetsiak ezaugarria estandarrak ezaugarria ez badu soilik agertuko da. Menpekotasun gehienak kategoriaren araberakoak dira. Kategoriak baldintzatzen du, beraz, analisi baten egitura neurri handi batean.

Funtzionalitate hau implementatzeko formulario dinamiko bat erabiltzea hautatu da. Formularioak hasieran forma edo lema, aldaera, modua eta kategoria hautatzeko aukera eskainiko du, besterik gabe. Erabiltzaileak eremu hauek betetzen dituenean, zehaztutako kategoriaren arabera, ezaugarri berriak proposatuko zaizkio. Kategoria eta gero azpikategoria da normalean eskatuko dena, baina ez beti, zenbait kategoriatako hitzek ez baitute azpikategoriarik. Proposatuko diren eremuak, esan bezala, analisien definizio-eskemetan daudenak dira. Horiek 3.4. atalean kontsultatu daitezke xehetasun guztiekin.

### 4.3.1 Algoritmoa

Forma, lema eta moduaren formulario-atalak estatikoki definituta daude, hauek ez baitira analisien definizio-eskemaren araberakoak. Kategoria aukeratzeko unetik hasten da sistema analisien definizio-eskemak irakurtzen. Lehenik, kategoriaren balio posible guztiak lortu behar dira. Erabiltzaileak kategoria aukeratzen duenean sistemak definizio-eskemak kudeatzeko APIa erabiltzen du aukeratutako kategoriari dagozkion ezaugarriak eskuratzeko. Behin hori eginda, ezaugarriak banan-banan prozesatuko dira erabiltzaileari hauen balioak eskatuz. Noski, erabiltzaileak normalean, kategoriak gain, oso ezaugarri gutxi definitu nahi izango ditu, eta beraz, ez da beharrezkoa ezaugarri guztiak definitzea. Algoritmoa jarraian ikus daiteke:

```

1 funcioa kontsulta_definitu(schema_path, maila)
2   schema = FSSchema(schema_path, maila);
3   /* Eskatu erabiltzaileari lema eta forma. */

```

```
4 lema = sortu_lema_form();
5 forma = sortu_forma_form();
6 kontsulta_balioak.add("lema", lema);
7 kontsulta_balioak.add("forma", forma);
8 /* Lortu kategoria balio posibleak eta eskatu erabiltzaileari bat
   aukeratzeko. */
9 kategoria = sortu_kategoria_form(schema->getKategoriak());
10 kontsulta_balioak.add("categoria", kategoria);
11 /* Kategoriaren arabera, eskematik dagozkion ezaugarriak lortu eta banan-
   banan erabiltzaileari balioak eskatu. */
12 ezaugarriak = schema->getEzaugarriak(kategoria);
13 bakoitzeko ezaugarriak as ezaugarri egin
14     balio = sortu_form(ezaugarri);
15     kontsulta_balioak.add(ezaugarri->getElementName(), balio);
16 ambakoitzeko;
17 /* Itzuli kontsultaren definizioa osatzen duten eremu eta balioak. */
18 itzuli kontsulta_balioak;
19 amfuntzioa;
```

## 5 Ondorioak

Oro har, proiektuaren hasieran ezarritako helburuak bete dira.

Batetik, urteetan zehar aldatzen joan den analisi linguistikoaren egitura xehetasunez eta formalki zehaztu eta definitu da. Zenbaitetan, beharra sortu den heinean, behar hori asetuko duten konponketak egin dira analisien egituraren, hasieran definitutako bertsioa aldatzen joan delarik. Horrek, zenbait analisitan, espero ez ziren salbuespenak agertzea eragin du. Orain, salbuespen horiek behar bezala definituta geratu dira.

Gainera, XML dokumentuen definiziorako lengoia den RelaxNG lengoiaiaz analisien definizio-eskema zehatza idatzi da. Horrek ematen dituen abantailak askotarikoak dira. Esaterako, analisien egitura ezagutu nahi duenak eskema hori kontsulta dezake, xehetasun guztiak kontsultatzeko aukera izango baitu bertan. Bestalde, programek ere interpreta dezakete eskema, RNG lengoaiak horretarako tresnak eskaintzen baititu.

Azken horrekin lotuta, anotazio linguistiko konplexuak kudeatzeko Armiarma aplikazioari bi hobekuntza esanguratsu egin zaizkio. Bi hobekuntzak analisien egitura ezagutzearekin lotuta daude, sistemak analisien definizio-eskemak erabiliko baititu erabiltzaileari laguntza eskaintzeko. Batetik, testu-corpusen gaineko kontsultak egiteko interfazea hobetu da, hitzen ia edozein ezaugarri definitzeko aukera eskaintzen baita orain. Bestetik, analisi berrien eskuzko sorkuntza egiteko tresna diseinatu da, prozesu horretan erabiltzailea zehaztasunez gidatuko duen sistema, alegia.

Egindako lana garrantzitsua iruditzen zaigu Ixa taldearen azpiegitura hobetze aldera, egindako hobekuntzak sistema osoaren oinarrian egin baitira, eta horrek, neurri batean, sistemari berari sendotasuna eman diola baiteritzogu.



## 6 Etorkizuneko lanak

Etorkizun hurbilari begira, Armiarma aplikazioaren analisien eskuzko sorkuntzarekin laguntzeko funtzionalitatearen implementazioa osotara bukatzea falta da. Horretarako, analisien definizio-eskeman eremu bakoitzaren inguruko iruzkin eta etiketak idatzi behar dira, ondoren, interfazean eremu bakoitzaren balioak eskatzean, erabiltzaileak eremua zein den jakin dezan.

Horrez gain, Armiarma aplikazioa bukatzeko zenbait ataza gelditzen dira egiteko. Interfazean hobekuntzak egin behar dira, eta bai funtzionalitatean ere. Dena dela, Armiarmaren inguruan aurrerantzean egin beharreko lanak definitzeke daude oraindik.



## 7 Eranskinak

### 7.1 Analisi linguistikoen ezaugarrien antolaketa eta multzokatzea

Eranskin honetan goi-mailako ezaugarriak nola multzokatu diren ikus daiteke. Ezaugarriak zerrendatuta adierazten dira analisietan, bakoitza nondik datorren adierazi gabe. Hone-la, adibidez, kategoriaren araberako ezaugarriak eta hiztegi-sarrera izateagatik dagozkion ezaugarriak nahastuta agertzen dira analisietan. Ezaugarri guztiak multzo logikotan sailkatu dira, eta definizio-eskeman multzo logikotan elkartuta ordenatu dira. Jarraian, kategoriaka, zein ezaugarri onartzen dituen eta hauek nola multzokatzen diren ikus daiteke.

Bost multzo desberdin sailkatu dira, eta koloreen bidez bereizi dira jarraian ageri den eskeman:

- **Horia:** Kategoria eta azpikategoriak.
- **Gorria:** Kategoriari dagozkion ezaugarriak.
- **Berdea:** Flexio-ezaugarriak.
- **Urdina:** Hiztegi-sarrera konplexuen (laburdura-siglak, eratorriak eta hitz-elkartuak) ezaugarriak.
- Grisa: Morfemetatik jaso ditzaketen ezaugarriak.

<u>ADB</u>	<u>ADI</u>	
* KAT	* OSA2	* KAS
* AZP	* ADOIN [adi]	* NUM
* ADBM	* ADM [amm]	* MUG
* KAS	* MAI [gra]	* FSL
* NUM	* BIZ [ize]	* MTKAT
* MUG	* KAS-PLUS	* OIN
* FSL		* AURL
* MTKAT	* KAT	* ATZL
* OIN	* AZP	* MDN [adl/adt]
* AURL	* ADOIN	* NOR [adl/adt]
* ATZL	* ASP	* NORI [adl/adt]
* OSA1	* LAGM	* NORK [adl/adt]
		* HIT [adl/adt]
		* ADM [amm]

* ERL [erl]	* KAS	* KAT
* MAI [gra]	* NUM	* AZP
* MOD [prt]	* MUG	* NMG
* KAS-PLUS	* FSL	* KAS
<b>ADJ</b>	* ERL [erl]	* NUM
	* MOD [prt]	* MUG
		* FSL
		* OIN
* KAT	<b>ADT</b>	* ATZL
* AZP		* OSA1
* IZAUR	* KAT	* OSA2
* KAS	* MDN	* MAI [gra]
* NUM	* NOR	* KAS-PLUS
* MUG	* NORI	
* FSL	* NOR	<b>HAOS</b>
* MTKAT	* HIT	
* OIN	* ASP	* KAT
* AURL	* KAS	* KAS
* ATZL	* NUM	* MUG
* OSA1	* MUG	* FSL
* OSA2	* FSL	
* ADOIN [adi]	* ERL [erl]	<b>IOR</b>
* LAGM [adi]	* MOD [prt]	
* ADM [amm]		* KAT
* BIZ [ize]		* AZP
* MAI [gra]		* PER
* KAS-PLUS		* KAS
<b>ADL</b>	* KAT	* NUM
	* AZP	* MUG
	* KAS	* FSL
	* NUM	* NMG [det]
* KAT	* MUG	* KAS-PLUS
* MDN	* FSL	
* NOR	* MTKAT	<b>ITJ</b>
* NORI	* KAS-PLUS	
* NORK		* KAT
* HIT		* AZP
	<b>DET</b>	* KAS

* NUM	* MTKAT	* KAT
* MUG	* OIN	* AZP
* FSL	* AURL	* ERL
* BIZ [ize]	* ATZL	* KLM
